

Altzo

2020 Urtekaria

COVIDa atean...



Bixente Olazarren
bertsoak



Alzoko horma
irudia



SantaBarbara
Ermita

Aurkibidea

Hitzaurrea	3
Udaletxetik dator notizia	4
Baso-eskola	5
Kopenhage	7
Eskutitza (Marmitte)	10
Santa Barbarako Ermita	13
Gure pelotarien martxa	20
Uda giro.....	25
Horma iruidia	28
Handiaren hezurak.....	30
Birusaren istorioa	34
Euskal herritik herbehereetara	36
Baso-igel gorria.....	40
Euskaraldia	44
Hitzak-iruditan.....	48
COVID elkarrizketak	51
Bertso eskola	56
(B)eroa Talde Feminista	57
Olentzerotan jakin minez.....	59
Bixente Olazarren bertsoak	63
Jaiotzak eta heriotzak	66
Eguraldia	67
Errezeta	72
Baserri-zopa	74
Lehiaketa	75
Komikia	77



Gipuzkoako
Foru Aldundia

21. urtekaria: Altzo, 2021eko ekaina

Diseinua eta maketazioa: Tolosaldeko Komunikazio Taldea
tkt@ataria.eus • www.ataria.eus

Argitaratzailea:

• Altzoko Kultura Batzordea
• Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. Lege Gordailua: SS-1223-2013
San Esteban 20; 20.400 Tolosa

(Urtekari irekia da hau eta nahita ez, ez dator bat idazleen iritziarekin)

Hitzaurrea

(TOK, TOK)

- Nor ote dabil ordu hauetan ate joka?
Ateko behatxuloan begia jarri eta ??
 - Nor zara? Ezagutzen ez dudan inori ez diot aterik irekitzen.
 - Kaixo, arratsalde on! Egun batzuk pasatzeko asmotan etorri naiz hona. Zer iruditzen zaizu atea zabaldu eta elkar ezagutuko bagina?
 - Bueno... ez zara denbora askoan geratuko, ezta?
 - Ez, ez, laster alde egingo dut, lasai!
 - Hala bada, ...
- Atea ireki diot, inozente halakoa.
- Aurrera! Eta zein da ba zure izena?
 - COVID-19 nauzu. Urte askotarako!

Horixe ekarri zigun 2020. urteak martxoaren erdialdean, udaberriaren atarian, ondo asko dakizun bezala, irakurle. Urrutiko kontuak - urruti dago Txina- ziruditenak, etxeko atean genituen bat-batean, eta egun batzuk pasa ondoren lehengora itzuliko ginela pentsatu nahi izan genuen gehienok. Urtea borobil borobila, kapikua gainera, ez zen, ez, urterik hoberena izan. Hilabeteak etxetik ia atera ere egin gabe, eta inoizko eguraldirik hoberena orduantxe. Hura mauka, hura!

Urte makala eta edozertarako zaila izan zen arren, Altzoko herriak bizi-bizirik jarraitu zuen eta baita hamaika gauza antolatu eta egin ere. Eta ez bazara oroitzen, ez kezkatu, urtekari bikain honetan errebaso eder bat egiteko aukera izango duzu-eta. Egin al dizugu hutsik inoiz? Urtekari-irakurle fina zarenez gero, honezkero jakingo duzu, motzean atalak ematen duela horretarako aukera bikaina.

Gustuko ez ditugun egoeraz lehenago eta errazago gogoratzen bagara ere, dena ez zen txarra izan, eta horren erakusle da frontoi handiko paretan hainbat herritarrek margoturiko murala. A zer lan ederra egin zutena! Eta berrikuntzak ere badaude aurtengo ale honetan. Ezetz herriko baserrien irudiak ikusita, horien izenak asmatu? Ez du balio helduenei galdetzeak, eguraldi ona aprobetxatuz buelta bat ematera atera eta bide batez saia zaitetz baserriak topatzen.

Altzoko bertso-eskolako kideak ere lanean jarri ditugu, eta sorta ederra egin dute aurtengorako. Nahi bai beraien bertsoetan aipatzen direnak egiak izan balira... Horretaz gain, Santa Barbarari buruzko historiatxo eder bat irakurtzeko aukera duzu eta, baita Handiaren hezurrei buruzko misterioa argitu zenekoa ere.

Bestetik, kanpora joateko aukera gutxi izan dugun urte honetan ere, izan dira mundua ezagutzera ateratako Alzotarrak ere. Oraingoan, Kopenhage eta Bredara bidaiatuko duzu unetxo batean.

Hori eta askoz gauza gehiago topatuko duzu 2020 urteko aldizkarian, eta ziur gozatu ederra hartuko duzula kontu batzuk berri eta beste batzuk ezagutuz. Eser zaitetz gustuko tokian, musika lasaia jarri xuabe-xuabe entzungailuetan, eta hasi. Zure iritzia jakiteko irrikitan gaude!

Mari Murua Zubizarreta

UDALETXETIK DATOR NOTIZIA

1/2020ko AURREKONTUA: 2020an **797.956,67 €ko** aurrekontua izan du Altzoko Udalak. Udalak ez zuen zorrik ekitaldi hasieran eta amaieran ere zorrik gabe gelditu da.

2/2020an egindako ekintza aipagarrienak eta inbertsioak:

- Altzoko Ostatuaren esleipen berria egin zen, 2020ko martxoaren 6tik hasita 10 urtetarako, Jokin Zavala Ceberiorekin Hitzarmena sinatu zelarik.

- Covid19 pandemia sartu zen 2020ko martxoan eta Udalak urte guztian zehar egokitzapen batzuk egin behar izan ditu; garbiketak areagotuz, parkeak eta leku publikoak itxiz denboraldi batean, jendea elkartzea dakartzaten jarduerak ez antolatuz edo aforo murriztarekin antolatuz. Honela, Baserritarren eguna, San Inazio Jaiak ez dira ospatu betiko moduan, urtero egin izan den txangoa ere ez. Beraz ezohiko urtea izan da 2020a.

- Altzo Muñon, Luberri etxearen ondoan, beste 6 etxebizitza tasatu dituen etxea eraikitzeke lanak hasi dira. 6 etxebizitzak dagoeneko salduta daude eta erakuntza lanetarako irailean eskuratu zuen Obra baimena Construcciones Francisco Aierbe SLk. 2021eko abenduan amaituta egotea aurreikusten da.

- Oroimen Historikoa berreskuratzeko lanak, I fasea; Altzoko Udalak "Gerra Zibileko biktimen eta frankismoko lehenengo garaian oroimen historikoa Altzon ikertzeko eta berreskuratzeko proiektua" onartu zuen. Proiektu hau 3 urtetan gauzatuko da Aranzadi eta Manuel Olano herritarren lanarekin. I fasean Altzoko Artxiboa arakatu dute eta zenbait herritarren testigantzak jaso dituzte.

- Altzoko Handiaren hezurren aurkikuntza Altzo Azpiko hilerrian. Aurreko puntua lantzen ari ziren Aranzadiren presentzia Altzon aprobetxatuz, Altzo Azpiko hilerria aztertu zen abuztuan eta Miguel Joakin Eleizegi Ateaga, ALTZOKO HANDIAREN hezurak bertan aurkitu ziren. Lan hauek egiteko Udala uneoro ALTZOKO HANDIAREN egungo familia-rekin harremanetan eta elkarlanean egon da.

- Inbertsio hauek egin dira:

- Segoretxe birgaitzeko II fasea amaitu da, zenbait egokitzapen agiten jarraitu delarik Ostatuan: Pellet berokuntza eta jangela egokitzea,)

- Altzo Azpiko Kaholin-eder meategiek eragindako kalteak konpontzen ere inbertsioa egiten jarraitu da, ekitaldi honetan Inguru Fisikoaren Ikerketa eta aurreko urteko zuzendaritza lanak ordaindu dira.

- Eskolako teilatuan autokontsumorako instalazio fo-

toboltaikoa egin da Jaurlaritzaren laguntzarekin. Hau martxan jartzen denean Eskolan, Frontoian, Hurritzako biltegian, Batzarremuñon eta Udaletxean hor sortutako argi-energia kontsumituko da.

- Altzo Azpi egokitzeko Proiektua erredaktatu da, eze-kuzioa 2021ean egiteko utziz. Proiektuaren izenburua ondorengo hau da ALTZO AZPI SUSTATU ETA GARATZEKO GI-2133 ERREPIDETIK OINEZKOEN SARBIDEA HOBETZEKO PROIEKTUA.

- Altzo Muñoko frontoi estalian zorua berritu da.

- Mantenimendurako sastrakak, sasiak... txikitzeke maki-na erosi da.

- Altzoko Handia eta Imazen pagoari buruzko triptikoak eguneratu dira.

- Altzoko Karmeldarrei hainbat lur sail erosi zaizkie.

- Biztanleak 2020 urtea 460 biztanlerekin hasi zen eta 447rekin amaitu zen.



Ostatuaren esleipena; Jokin eta Arantxa



Eskolako teilatuko instalazio fotoboltaikoa



Etxebizitza Tasatuen eraikuntza lanak barne aurreikusten zen eta kopuru hau finantzatzeko EJri laguntza eskatu zitzaion



2020eko martxoaren 14a ahaztuko ez dugun data izango da guztion bizitzan. Gure eskolan, aste-bete lehenago, martxoaren 7a hain zuzen, data garrantzitsu bihurtu da ere. Larunbat hura izan zen hurrengo ikasturtean martxan jarriko genuen Baso Eskolako formazioaren azken eguna. Urteak dira proiektuez gain, tailerrak ere txertatzen hasi ginela, eta Ekogunetik esperientzia honen berri iritsi zitzaigunean, haiekin kontaktuan jarri eta lehen pausuak ematen hasi ginen: Udalarekin harremanetan jarri, formazioa jaso, gurean nola integratuko genuen aztertu...

Pedagogia berdean murgiltzen hasi ginen, eta mugimendu honen oinarriak ezagutu genituen Irati eta Kakunen eskutik. Hala nola, herrialde garatueta haurrek gero eta denbora gutxiago ematen dutela kalean eta jolas librerako duten denbora ere mugatua dela. Honek arazo fisiko (alergiak, ikusmen arazoak, motrizitatearen atzerapenak...), psi-

kiko (estresa, depresioa...), zein kognitiboak (hiperaktibitatea, arreta baxuko sindromea...) dakartza. Kezka honi aurre egin nahian, 50. hamarkadan, Danimarkan sortu zen eredu honetako lehen eskola. Gerora, inguruko herrialdeetara zabalduz joan zen, eta egun, ia edozein herrialdetan aurki daitezke honelako ereduak.

Beraz, umeak naturan hezteak onurak zituela garbi zegoen: haurrek irudimena eta sormena suspertzen dituzte zentzumeneren bidez, lankidetzeta eta naturarekiko zein gainerrakokiko errespetua bultzatzen dituzte, trebetasun motorra hobetzen dute, gaixotasunak edukitzeko aukera murrizten dute (loditasuna, adibidez)...

Altzon, kolore nagusia berdea bada ere, eskola naturara gerturatu nahi genuen, basoan edo ingurune natural batean jolastu, ikertu eta ikastea posible zela egiaztatu, haurrek naturarekin duten harremana handituz eta sendotuz. Baso eskola aurtengo lanaren ardatza izan da, eta Urteko



Planean txertatu dugu helburu bikoitzarekin; alde batetik, haurren garapen integralean positiboki eragitea, naturak eskaintzen dituen onurak aprobetxatuz eta natura bera izatea baliabide didaktikoa; eta bestetik, natura eta bioaniztasuna babestea, parte hartuko duten haurrek eta eskola-komunitate osoak ingurumen kontzientzia hartuko dutelako, eta hauek izango direlako bakarria dugun bizileku hau zaindu eta mantenduko dutenak. Bide honetan ezin dugu ahaztu, kideen arteko elkarrekintzak eta harremanak daudela, guztion arteko elkarriketa eta elkarbizitza positiboa sustatu nahi dugula, eta edozein eremutan jasotzen dela heziketa, barruan zein kanpoan.

Egun bizi dugun pandemia egoeran, koronabirusa aire zabalean gutxiago kutsatzen dela ikusita asko dira ikasgelak naturara zabaldu dituzten ikastetxeak. Baina ez hori

bakarrik. Egun bizi dugun krisiak zerikusi handia du klima-larrialdiarekin eta honi aurre egiteko tresnetako bat, hezkuntza bera dugu. Konturatu gara ez dela sekulako azpiegitura behar, burua horretan jartzea baizik, eta egin ahala goaz ikasten eta moldatzen. Irteerak sistematizatzea izan da helburuetako bat, eta honekin, "irteerakoa gelara eramatea eta gelakoa irteerara". Lan honetan, guztion arteko koordinazioa oso garrantzitsua da eta komunitatearen inplikazioa ezinbestekoa; Udalaren laguntzarik gabe adibidez proiektu honek ezingo luke aurrera jarraitu. Altzo herri txikia da, eta horrek erraztu egiten du Udalarekiko hartu-emana, baina borondatea eta horretarako jarrera behar da, eta hori badago.

Beraz, Norvegian esaten den bezala... "ez dago eguraldi txarrik, arropa desegokia baizik!".

Irakasle taldea





HOTZAK ERE BADU GOXOTIK

Urtebete igarota ere, ez naiz gai izan Copenhaguek sentiarazitakoari hitzak jartzeko, baina, askotan pentsatzen dut emozioek eta sentipenek gehiago konta dezaketela hitzek baino, batzuetan ez baita hitzik behar sentitzen den hori ulertzeko, eta ez dago ulertzeko sentitzea bezain modu egiazkoagorik. Beraz, nire emozioei atea irekita utziko diet ondorengo lerro hauek bete ditzaten.

Betidanik distantziak eta arrotza zaidan horrek halako bertigoa sortu didan arren, ilusioa nuen betiko lekutik kanpora joateko, betiko erosotasunaren abantailekin apurtzeko eta nire buruaren bila abiatzeko. Joan aurreko prozesu amaigabe guztia pausoz pauso jarraitu nuen arren, aireportuan bi maletekin agertu nintzen arte, ez nintzen jabetu egitera nindoanaz.

Sinestea zaila zitzaidan arren, hantxe nengoen, udako egun batean, betiko jende, betiko leku, betiko ahotsen aterperik gabe, euskaraz oso bestelako hizkuntza bat entzuten den hiri jendetsu batean, maleta gerora garrantzizkoak izango ez ziren gauzez beteta nuelarik. Halaxe iritsi nintzen

Copenhaguera, nora nindoan, zertara nindoan, eta bertan zer aurkituko nuen benetan jakin gabe, nahiz eta ziurgabetasun horrek bere xarma izan.


Konturatzerako, Kopenhageko beste turista bat izatetik bertakoa izatera igaro nintzen eta hasieran ezezagun hutsak ziren pertsonak beharrezko bihurtu ziren. Unibertsitateko musika gelako doinu goxoeak, jantokiko bazkariek, bazkal osteko koruko entseguek, kaleetatik barrena galduta igarotako ordu guztiek, begirada eta irrifar konplizeek, arnasik gabe geratzerainoko algarek, belardian etzanda kontu-kontari igarotako arratsaldeek, ostegunetako parrandek, larunbatekoek, hurrengo egunetako aje arratsalde elkarbanatuek, betiko tabernako garagardo merkeen konpainian gauak bihurtzen ziren arratsalde luzeek... askorako eman zuten, etxetik urrun zegoen leku batean inoiz baino etxe-koago sentitzeraino.

Izan ere, bat-batean zure betiko normaltasunaren parte ez den leku batean zaude, inor ezagutzen ez duzun eta dena arrotza zaizun toki batean. Ez daukazu inongo lotura-



duen askatasun mugatuan hankak tolestuta, lepoa okertuta, hiru ordu lo egin genituela salatzen zuten begi zuloekin eta aireztatze ezaren kiratsarekin. Beste egoera bat balitz, ez nuen irripar batez oroituko momentu hau, baina, berdin zitzaigun zenbat ordu igaro autobus hartan, elkarrekin geunden eta badakizu, konpainia onean orduak motz.

Hara iristean, ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena, basoaren erdian galduta geunden, ingurua zuri eta zerua ilun. Sekula ez nuen pentsatuko 20 gradu azpian egonda berotasuna senti zenezakeenik. Han beti zen gaua, izan arratsaldeko laurak ala gaueko hamaikak. Bidaia gogoangarria izan zen, saunaren goxotasunean egotetik izoztutako lakuan bainatzera igaro ginen, betileak eta txanotik ihes egiten zuten ileak izozterainoko txangoak egin genituen, espero gabeko aurora borealen bisita jaso genuen, gauez ilargiaren eta izar uxoen argipean eta babesean galdu ginen elurretan, fiordoan paisaiaz gozatzeko auke-



rik, ezta zeure buruarekin ere. Bertan, inork ez zaitu ezagutzen, inork ez daki nor zaren, zer duzun gogoko, zer gorroto duzun, zein diren zure ahulguneak eta indarguneak, inork ez daki ezertxo ere zutaz. Orduan jabetzen zara zaren horri atea irekitzeko aukera dela, zure barruan gordetzen den hori askatzekoa, eta zeure buruaz ezagutzen ez zenituen gauzak ezagutzen dituzu. Eta orduantxe konturatzen zara nor zaren, eta zer ezkututzen duzun edo dizuten betiko errutinak, monotoniak eta zure gorputzean lotuta dituzun kateak.

Hilabete guzti hauek neure barrura bidaiatzen igarotzeaz gain, honetatik kanpora ere bidaiatu nuen, Malmö, Budapest, Praga, Krakovia, Oslo, Danimarkako hainbat eta hainbat txoko, Berlin eta horren berezia bihurtu zen Laponia.

Azken bidaia honetatik gordetzen dudan oroitzapen kuttun bakarra ez da bertako paisaia zoragarria, baita hara iristeko eta handik itzultzeko bidaia bera ere. 24 ordu behar izan genituen hara joateko eta beste hainbeste handik itzultzeko. Han geunden autobuseko eserleku batek ematen

ra izan genuen eta etxetik are urrutiago geundela sentitu genuen.

Ohartzerako inork hala nahi izan gabe, gauzak aldatzera zihoazen, ohikoa eta betikoa zirudiena amaierara iristen ari zen. Ez genekien zer zettorren, zer egin behar genuen, ezta nola ere, inork ez baitigu erakusten agurrak egiten edo hauen aurrean jokatzeko. Baina, gauza bat genekien, oso zorteko ginela Kopenhagek gu elkartu izanaz, eta bagenekien hura beste hainbat bizipen eta oroitzapenen hasiera besterik ez zela. Hortaz, halaxe agurtu genuen elkar eta halaxe agurtu ginen Kopenhagez, ahotsak dardarti eta malkoek eztarritik igaro ezin ziren hitzen ordez hitz egiten zutela. Bagenekien berriro ez genuela halako hasierarik lehen aldiz biziko, bizitzan gauza oro bizitzeko soilik aldi bakar bat baitago, baina inoiz baino zoriontsuago ginen lehen aldi hori elkarrekin bizitu izanaz.

Hala, denbora luze bezain motz baten ondoren, male-



tak hilabete guzti haietako oroitzapen kuttunez beteta eta bihotza inoiz baino beteago sentituz igo nintzen itzulerako hegazkinera, hegaldiak ez beste zerbaitek eragindako zorabioa eta bertigoaren konpainian eta bidaiak guzti honetan zehar gure kantu kuttun bilakatu zenaren hitz hauek go-goan:

Nork bere burua eramaten uzteak
itxura onegia du,
ausaz jokatzek, inoiz ez jakiteak non buka dezakezun
... edo non hasi.

Narrea Olano Tapia

Hau patue uerea!

Berroitamar litro esue kuido haundiz eta tantoik galdu gabe onartu eta zaintzeittun marmitte zoragarrie nauzue; eta uee ibilbidea nolakoa izan dan eta zertaa eaman nauru kontatzea natorkizue atsalde hotz eta zimel hontan.

Berroitamar litro bai, baserriñ bete, esue goxo eta txuri-txurikiñ, bi besokiñ gorputzen kontra etxeoandrek fuerte-fuerte heldu, jaso eta Lauroverrea! "Hola natrok oaiñ" entzun diot noizpaitt. Taa zertako holako komerik, esangozue. Beharko! Gurelesak paatze zunangatik! Noizko paatu gañea! Doble prezion saltze zuen esuea etzez etxe ibillita.

Eztakizue nolako txukunek zien gue etxe hontan, nola garbitze niñuten askan eguerdiro. Ta ez ni bakarrik, baita behien errapek ere, ondo garbittu ta lehortu jezten hasi aurretik. Taa erropa txukunekin ibilli ikullutik barrena, ez aste oson aldatu gabeko bonbatxo zikiñekiñ. Taa esuea zijoan tubo ta outziteri guztie? Han etzan usaik ere geatzen.

Lauroverra arrankatu ta ttor-ttor-ttor, martxa. Saiatu gabe ez omen da ezer; hau behintzat egi latza da. Gue etxeoandrea bezela saiatu izan balie denak! Atariñ esuea banatzeik ez, barrun tanton bat eroi ezkeo, keja! Poltxikutik trapue atea ta zorue ondo lehortu, beharko! Eue, ze gauza txarra dan inbirie! Hamar litroko marmitte ttikia pasa, eta, goitik hasten bazan banatzen, behekoa keja, grasa gutxigi irixte zitziola behekoi. Behetik hasi eta hurrena erdikok "¿no tienes leche desnatada?" "Noooo" goxo-goxo erantzun eta marmarren segi, nire ahizpa marmitte ttikie eskun hartuta. Aszensorek oaiñ bai, ordun etzien asko, guk behar genittunen.

Familie aurrea atea beharra zeon, zea. Esuekiñ batea,




arrantzek, ollaskok eta koneyuk ere estimatuk izate zien. Baita azelgak eta porruk ere. Gogon dauket behiñ nola illar mordo batekiñ abittu zan etzetik esuekiñ batea seguru salduko zittulakon. Eskeñi, taa, zea, bate saldu ez. Hurrengo euneako aletuta poltsa ttikitari jarri, berriaz eskeñi, taa, denak saldu!

Klase guzitako jendea topatze zun. Hotzai aurre itteko kafesne bero-beroa eskeintzen zuenak eta baita Eguerritan oparie eitte zienak ere. Nigana esue gehion billa etortze zanen, earki antzemate zitzaion etxeoandrei nolako ongietorrie izantzun. Zuri asko hitzeiñ eta atzetik saltzen zekiñen bat ere bazala ustet tarten. Holaxe eunero, Lanroverren hareta ta honea, tertuli ugaritako esue goxoa banatzeko prest. Makiña bat buelta! Material onekok izan gu munbait! Eztakit ze buintazio izango zuen berdez jantzitako eta armaraz jositako tipo haik. Gue etxeoandrek hartu zun susto latza behintzat. "Qué lleva uté ahí". "Leche". Ez xixisten demonio harek! Nei tapa kendu ta barrua beidatu behar lotsa gutxikiñ muturzorrotz harek! Zea eamango nun, bezperan jertzitako behi-esue goxo-goxoa! Ia-ia bigotek zurittu zittun burue makurtuta!

Haik garaiek! Oaiñ hemen nao, baserriko txoko hontan, huts-hutsik. Falta botatzet esue goxo hue, bai hoixe! Gaitzerdi, halare! Pasaeran etxeo bati latza aittu nion aurreko baten. Lore batzuk pintatuta dotore utziko niñula, noski. Koloretako lorek, hostok, euzkilorek eta eztakit ze gehio. Geo atariko sarreran dotore emango omen det. Kaka! Ez al da hasiko! Pura errekoa utziko nau! Denen bixtan gañea! Askoz hobeto nao hemen, uee ahizpa txitikiñ batea. Hau paraderoa uerea! Hau patue, ditxosozko adelantue!

Motzean



HAIZETEA (2020-10-21)

Inork espero ez zuen alerta laranja hark, urriaren 21eko goizaldeko haize bolada indartsuek kalte larriak eragin zituzten eskualdeko zenbait landa-eremu eta basoetan, baita Altzon ere. Landa-eremua da nagusi hemen; hortaz, mendiko bide nahiz errepide askotan arazoak izan ziren.



Santa Ageda bezperan kantari

(2020/02/04)

Herriko koruak, David Azurzaren gidaritzapean, Euskal Herriko leku desberdinetatik jasotako kantu eta koplak kantatuz pasa zituen gure etxeetako atariak. Euskal Herrian, Santa Ageda bezperan kantari ibiltzeko ohitura aspaldikoa da. Altzon, orain urte gutxi ekin zioten otsailaren 4an etxetz etxe kantu-eskean ibiltzeko tradizio honi eta, herritarren eskuzabaltasunari esker jasotzen duten diruarekin, urtean zehar kultur ekitaldiren bat antolatzen dute. Horrela, uztailen, KEA ahots-taldearen emanaldia antolatu zuten guztion gozamenerako.



Santa Barbara Ermita

Pilar Zuriarainek utzitako argazkia

Herri askotan edo gehienetan ikus ditzakegu ermitak, eta altzotarrantzak oso ezaguna da Santa Barbara Ermita. Oso labur bada ere, ermita honen historia eta hainbat kontakizun azaldu nahi ditugu oraingoan. Horretarako Altzoko Udal artxiboa arakatu dugu. Bestalde herritarren testigantza batzuk jaso ditugu. Azkenik, Antxon Aguirre Sorondo eta Koldo Lizarralde Elberdinen "Ermitas de Gipuzkoa" liburuan jasotako informazioan oinarritu gara lana burutzeko.

Historia

Esaten da, nahiz ez dagoen frogatuta, Altzoko lehen eliza izan zela. Gure ezjakintasun osoarekin, litekeena dela uste dugu. Bere inguruan, Batzarremuño deitzen zioten lekuan egiten zituzten altzotarrak lehen batzarrak. Beraz oso leku esanguratsua zen altzotarrentzat. Horrez gain, Nafarroako bide zaharra hortik pasatzen zen. Altzoko Olazabal monasterioa, Batzarremuño, Alzoko Muño...

Garai bateko Santa Barbara Ermitako eraikuntzak ez zuen



gaur egungoaren antza handirik argazkian ikus litekeen moduan. Gaur egungo ermitari itsatsita eranskin bat ikusten da. Eranskin hori orain dela 70 bat urte eraitsi zuten bere egoera oso txarra zelako eta arriskua sortzen zuelako. 1998an, Jexux Muruak, Aizpe Handiko Angela eta Franzisko Lizarribarri egindako elkarrizketan adierazten dute eranskin horrek azpian, zimitorioa omen zuela. Herritar batzuk ondo gogoan dute oraindik, haur zirenean nola ibiltzen ziren jolasean bertan, eta zimitorioaren ezkerraldean, atea itxita, kartzela deitzen zioten lekua zegoela. Zimitorioaren ezkerraldean agertzen den leihoa, kartzelakoa omen da Joxepa Jauregik dioenez.

Santa Barbara Ermitari buruz idatzita agertzen diren lehen testigantzen arabera, bizilagunek auzolanean eraiki zuten Santa Barbara Ermita. 1661. urtean amaitu zituzten lan horiek. Urtebete beranduago, 1662ko abenduaren 4an, Don Pedro de Ibarluzea, Alegiako erretoreak bedeinkatu zuen ermita.

Hurrengo aipamena 1678. urtekoa da. "Indietan" zegoen Francisco de Zuaznabarrek 1.500 peso bidali zituen Santa Barbara Ermitan, igandero eta jai egunetan, meza bat atera zezaten Zuaznabar baserrian maiorazko bat eratzeko.


Zuaznabar Goena baserrian, gaur egungo Frailetan, bizi zen Juan de Zuaznabar, Franciscoren anaiak, gauzak aldatu nahi izan zituen esanez, Francisco de Zuaznabarrek bidalitako gutun batean iritziz aldatu zuela eta Santa Barbaran eman orde, Altzo Azpiko San Salvador elizan eman nahi zituela aurrez esandako mezak.

Juan de Zuaznabarren jarrerak asko haserrarazi zituen Altzoko herritarrak eta ondorioz gatazka bat sortu zen. Azkenean ordea, 1695. urtean erabaki salomonikoaren bidez iritsi ziren adostasun batera. Aurrerantzean, jai egunetan Santa Barbaran emango zituzten mezak eta Altzo Azpiko elizan ere bai. Zehazki "misa rezada" esaten da Altzo Azpiko kasuan.

Nonbait gertuan zutenarekin ez ziren konformatzen Altzoko eliztarrak, eta garai hartan, zabaldua zegoen beste lekuetara joateko ohitura edo nahia. 1692. urtean, Iruñeko Gotzaindegiko arduradunak agindua helarazi zien Altzoko herritarrei esanez, bertan behera utzi behar zituztela Ikaztegiatako Asuncion elizara egiten zituzten joan etorriak, eta bezperak, Santa Barbara Ermitan errezatu behar zituztela.

Esaten zaigunez, Santa Barbaran, Martin de Barrenechea





izeneko ermitau (ermitaño) bat ere bizi zen. 1741ko uztai-lean Lazkaoko Santa Teresa konbentuan ospatu zen bileran parte hartu zuen.

1746ko maiatzaren 25ean, Gotzainak Santa Barbara Ermita bisitatu zuen. Gotzainaren bisita baliatu zuten herritarrek adierazteko, aurreko erretorearen agintaldian amaitu gabe gelditu zela aldarea. Bi hilabeteko epea eman zieten aldarea amaitu behar zutenei lanak amaitzeko. Epe horretan ez bazituzten lanak amaitzen eskumikatuak (exkomulgatu) izango zirela jakinaraziz.

Urte batzuk pasa ondoren, Gotzainaren ordezkariak berrirri bisita egin zuen Santa Barbarara, 1810eko azaroaren 5ean hain zuzen. Nonbait emankorra suertatu zen bisita, izan ere teilatua berritzea eta koruan "cielo raso" ematea agindu baizuen.

Obra hauez gain, leiho bat irekitzea ere agindu zuen ermita hobeto argiztatzeko. Nahiz eta gaur egun ez dagoen, Santa Barbara Ermitak bazuen ordulari bat ere.

Antxon Aguirre Sorondo eta Koldo Lizarralde Elberdinen liburuan esaten denez, Santa Barbara ermitak bazituen inguruan bere soroak eta bertatik jasotako uzta, batez ere garia eta artoa, erabiltzen zen dirua lortzeko eta ermitako gastuei aurre egiteko.

1855. urtean Santa Klarako mojak Santa Barbararen koroia konpondu zuten.

1893. urtean jantzi berri bat egin zuten Santa Barbararentzat, eta aldarean, bere eskubian dagoen San Migel, ezpata eta ezkutu berri batez osatu zuten.

Lapurreta bat ere gertatu zen 1985. urtean. Lapurrek nonbait bazekiten zer nahi zuten eta aldarearen goi partean zegoen Santa Ana eraman zuten. Arte munduan aditua den Edorta Kortadiren esanetan, zalantzarik gabe balio handiena zuen pieza zen eraman zutena.

1993. urtean burutu ziren konpontze edo berritze lanak Santa Barbara Ermitan. Konponketa hauek 4.500.000 pezetako aurrekontua izan zuten eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.000.000 pezetako laguntza eman zuen eta Altxoko Udalak 500.000 pezetakoa. Aurrekontua osatzeko falta zena herritarrek egindako ekarpenekin osatu zen.

Ohiturak eta sineskeriak

Gaur egun, ohikoa izaten da Santa Barbara egunean ermitara inguratu eta kanpaiak jotzea. Kanpaien inguruan



Indalecio Ojangurenen argazkia.

aipamen xeibre batzuk egiten dira liburu horretan. Kontatzen da, Altzo Azpiko elizaren kanpaien hotsek esaten zutela "gukenai", guk ere nahi. Kanpai horiei erantzuten zuela Santa Barbarakoek "ez dit emango". Azkenik Altzo Muñoko kanpaiak esaten zuela "guk goian, jauna" Eta horrela, elkarri erantzunez jarduten zutela herriko hiru kanpaiak.

Esaten denez eta herritarrengandik entzun izan dugunez, hitz egiteko arazoak edo berantiarak ziren umeen gurasoek bisita egiten zuten Santa Barbara Ermitara. Limosna bat botatzearekin batera, otoi egiten zuten lehenbailehen ume horiek gairitu zituzten aipatu arazoak.

Beste batzuetan oinez ikasteko berantiarak ziren kasuetan ere gertatzen zen aurrez aipatutakoa, alegia, bertaraztea, otoi egitea eta limosna bat eskaintzea.

Garai batean urtean hiru aldiz etortzen ziren herritarrek prozesioan herriko parrokiatik Santa Barbara Ermitara; San Markos, Santa Kruz eta Asensio egunean.

Aurrez aipatu dugun liburuan, Arretzeko Bittori Lasa Jauregiren testigantza bat jasotzen da. Bittorik dio bere aitonarengandik jakin zuela, azaroak Tean, Santu Guztien Egunean, gaztaina erreak banatzen zirela meza ondoren. Emakumeak gaztainak erretzeaz arduratzen zirela eta gizonezkoak edaria ekartzeaz.

Orain dela gutxi arte Santa Barbara egunez, abenduak 4, meatzarien zaindaria izaki, Caolin Ederreko langile eta nagusiak bertara hurbiltzen ziren meza entzutera. Ondoren, Arandia jatetxean kabitzen ez zirenez, Udaletxe azpian zegoen eskolan egiten zuten bazkaria. Calcinor lantegiko nagusiek eta langileek ere urte askotan egin ohi zuten bazkaria Arandia jatetxean Santa Barbara egunez.

Gaur egun Santa Barbara egunean meza ematen da er-



Jose Ramon Jauregi. Fermina Imaz. Pilar Zubiarrainek utzitako argazkia.



mitan eta mezetatik herritarrak ateratzen direnean udal ordezkariak hurrengo urteko egutegia banatu ohi dute. Herritar ugari bertaratzen da eta egun osoan irauten dute kanpai hotsek.

Eskola Santa Barbaran

Behin baino gehiagotan entzun izan dugu urte batzuetan bederen, Santa Barbaran kokatu zela Altzoko Eskola. Herritarren testigantzei kasu eginez horrela dela esan dezakegu. Aurrez aipatutako Angela eta Franzisko Lizarribarri egindako elkarrizketan horrela adierazten dute. Nahiz eta bera ez zen bertan ibili, Arretxeko Bittori Lasa Jauregik zehaztasun handiz kontatzen zituen Santa Barbaran eskola zenekoak. Bere birramona, Fermina Imaz, Legarre baserrikoa zen. Hain justu, Imaz Bertsolariaren alaba. Fermina Imaz 1852. urtean jaio zen eta Legarretik etortzen zen Santa Barbarara eskolara. Sarritan entzun izan dugu Altzoko Handia ere Santa Barbaran ibili zela eskolan. Fermina Imazek askotan kontatzen zuen berak 9 urte zituela gertatu zela Altzoko Handiaren heriotza, 1861. urtean hain zuzen. Eta nola atera ziren eskolatik kanpora eta Santa Barbara Ermitaren ingurutik, aurrez aurre dagoen Ipintza baserrira begira jarri, eta ikusteko aukera izan zutela nola eraman zuten hilkutxa handi batean Migel Joakin.

Eskola bakarrik ez, Santa Barbaran bizi izan ziren eskolako maistra eta bere alaba, beraz, eskola izateaz gain, etxebizitza ere izan zen urte batzuetan. Altzoko Udal Artxiboko dokumentuetan ikus liteke hori.

Destakamendu militarra

Santa Barbara ermitak bere historian zehar zeregin ezberdinak izan ditu. Herritarrek auzolanean eraiki zuten ermita eta bere zeregin nagusia otoi-tza eta errezorako lekua izatea zen. Horrez gain, azaldu dugu noizbait eskola ere izan zela. Baina bere historian zehar bete zuen beste zeregin bat ere, destakamendu militarra izatea.

II. Errepublika garaian, Eibartar bat buru zela destakamendu txiki bat egon zen Santa Barbaran. 1936. urtean,



INVENTARIO de las propiedades y derechos que posee este Ayuntamiento, con expresión detallada de todos los bienes raíces, muebles, efectos, derechos, acciones y demás pertenencias que le corresponden, exceptuando las rentas, impuestos y otros ingresos que constan en el presupuesto.

Comprende también el capital que representan los gravámenes que pesan sobre las fincas, y los préstamos ó empréstitos en la parte que aun no han sido amortizados.

	Pesetas	Cénts.
La finca urbana denominada <u>Sto. Bartolomé</u> se halla inhabilitada no produciendo por lo mismo ninguna renta. Contigua por el Norte con terrenos de Manuel Antonio Gaurugui, por el Sur con terrenos de José Antonio Ayestaran, por el Este con terrenos de José Antonio Perrañero y por el Oeste con camino carretil siendo su superficie de cuatro metros de ancho por siete de largo, siendo su valor actual	900	
La finca urbana denominada <u>cofrades</u> se halla arrendada en la cantidad de pesetas por año <u>150</u> contigua por el Norte con camino carretil público, por el Sur con la Plaza pública por el Este con terrenos de Antonio Leizaola y por el Oeste con terrenos de José Antonio Ayestaran, siendo su superficie de catorce metros cuadrados y valorado en la cantidad de pesetas	150	
	9000	
Total	9.690	

El valor del mobiliario existente en las oficinas y dependencias del Ayuntamiento, se fijará en una sola partida con referencia á la relación detallada que debe obrar en la Secretaría.

Los bienes raíces se designarán haciendo constar su clase, situación, cabida, linderos y valor.

Los valores representados por títulos de la Deuda pública ó de establecimientos de crédito, se detallarán expresando su clase, número, fecha de la emisión, tanto por ciento que produzca.

Frankoren altxamendu militarra gauzatu zenean, dozena erdi lagun zeuden bertan eta matxinatutako soldadu eta erreketek beraien aurka jo zuten. Jaso ditugun testigantzetatik jakin dugu, Izarre baserri aurreko zelaitik tiro egiten zutela Santa Barbara aldera. Soldadu eta erreketek matxinatuak askoz gehiago izanik, berehala eman omen zuten amore errepublikaren aldekoek.

Soldadu eta erreketek nafarrek Santa Barbara Ermita eskuratu zutenean, teilatura igo, bertan zegoen bandera errepublikarra kendu eta ¡Viva la nuestra! oihukatuz altxamendu militarraren bandera jarri omen zuten.

Norena da jabetza?

Modu laburrean kontatu ditugu Santa Barbara Ermitaren aipamen batzuk, baina bada beste kontu bat jakinarazi beharrekoa. Eskuaratean izan ditugun hainbat dokumentuetan esaten da Altzoko Udalarena dela Santa Barbara Ermitaren jabetza. Hori adierazten du besteak beste, Altzoko Udalak 1919an egin zuen inbentarioak. Bertan agertzen dira udalaren ondasunak, hain zuzen, Santa Barbara eta Udaletxea aipatzen dira ondasunen artean. Santa Barbari buruz esaten du, urte horretan ez dela inor bizi eta ez duela ondasunik sortzen.

Gauza berdintsua esaten da 1938an. Altzoko Alkatea, Jacinto Lizarribar eta Altzoko Idazkaria, Miguel Ayestaranez sinatutako agirian. Bertan adierazten da Santa

Barbara Ermita udal ondasuna dela. Gaineratuz, ez dela inor bizi eta arrazoi horregatik ez duela ondasunik sortzen.

Orain dela egun batzuk galdetu du Altzoko Udalak, Tolosako Jabetza Erregistroan " Registro de la Propiedad" ea noren izenean dagoen erregistratuta Santa Barbara Ermita. Bertatik jaso berri den agirian esaten da Alzoko Muñoko Parrokia dela titularra. Agiri horretan zehazten da Donostiako Gotzaindegiak, Jose Maria Setien Alberroren agintaritzan, 1983. urtean inmatrikulatu zuela Santa Barbara Ermita.

Tartean egon liteke ikusi edo ezagutzen ez dugun beste agiriren bat, gauzak alde batera edo bestera argitzen dituen, baina ukaezina da Santa Barbara Ermitaren jabetzari dagozkion aferak ez daudela garbi. Pentsatzen dugu kome-nigarria eta beharrezkoa litzatekeela gauzak argitzea. Ea horrela den, eta denbora gehiegi pasa baino lehen, inplikata dauden erakundeak Santa Barbara Ermitaren jabetzari buruz dauden zalantzak uxatzen dituzten.

Manu Olano Jauregi

⑥ Miguel Jgestarain, Secretario del Ayuntamiento
de esta villa de Plát.

Certifico: Que este Ayuntamiento no percibe cantidad alguna por los bienes que posee, que son la casa Consistorial y la Ermita de Santa Bárbara.

Además Certifico: Que no se hace recaudación alguna por el concepto de pesas y medidas.

Y para que conste se pide la presente en Plát a cuatro de Abril de mil novecientos treinta y ocho.


El Alcalde
Jacinto Sisarrifal




Jgestarain



NOTA SIMPLE INFORMATIVA N 2754998

Para información de consumidores se hace constar que la manifestación de los libros por esta Nota Simple Informativa se hace con los efectos que expresa el art. 332 de Reglamento Hipotecario, ya que sólo la Certificación acredita, en perjuicio de tercero, la libertad o gravamen de los bienes inmuebles, según dispone el art. 225 de la Ley Hipotecaria.



REGISTRO DE LA PROPIEDAD DE TOLOSA NUMERO UNO

DATOS DE LA FINCA

Datos Registrales: Tomo : 994
Libro : 15 de ALTZO
Folio : 238
Finca : 791
CRU: 20005000035711

DESCRIPCION

URBANA: Un solar rectangular que mide ciento dieciséis metros con dieciséis decímetros cuadrados, donde está ubicada la **ERMITA DE SANTA BARBARA**, en el término de Altzo, que mide ciento diez metros con dieciséis decímetros cuadrados. Linda por el Norte, con el cementerio municipal; por el Sur, con camino carretil; por el Este, con terrenos del Ayuntamiento; y por el Oeste, con terrenos propiedad o pertenecidos del caserío Mendizabal.

TITULO:

Titular/es:

PARROQUIA SANTA MARIA DE LA ASUNCION DE ALTZO-MUÑO
Dependiente del Obispado de San Sebastián
Participación: La total finca, con carácter privativo

Título : INMATRICULACION
Autoridad : Don José María Setién Alberro
Población : DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Fecha Documento : 20/12/1982
Inscripción : 1ª
Fecha inscripción: 13/06/1983
Tomo/Libro/Folio : 994/15/238
Finca : 791

CARGAS:

La finca de que se trata, se halla libre de cargas.

PRESENTACION:

No existen documentos presentados en el libro diario, pendientes de inscripción o anotación, relativos a la finca de que se trata.

Lo relacionado, es conforme y tiene efectos hasta el cierre del Diario del día hábil anterior al de su fecha de expedición.

Tolosa, a trece de abril de dos mil veintiuno.



GURE PILOTARIEN

MARTXA

Denean bezala eragin izugarria izan du Covid 19-ak gure pilotarien martxan ere. Moteldu du, bolada batzuetan baita eten ere, baina ez du guztiz gelditzerik lortu. Joan den urteko urtekariaz azaldu genuen bezala, hogeita hemezortzi neska-mutil altzotar ari ziren gure pilota eskoletan urte hasieran (2019-2020 ekitaldia). Urte amaieran, 2020-2021 ekitaldian, 34 ziren ari zirenak, 18 neska eta 16 mutil. Eskola kirolaren baitan jardun dute 19k: 11 neska (denak palaz) eta 8 mutil (7 eskuz eta palaz eta 1 palaz bakarrik). Federatu mailan ari zirenak 15 ziren: 8 mutil eskuz eta 7 neska palaz. Lehenak, Pello Olano, Nagore Murua eta Uxue Olanoren esanetara, eskuz harekin eta palaz hauekin, astean saio bat egiten dute Altzon bertan, ohitura den bezala. Bigarrenek berriz, Intxurre Pilota Eskolan, Beñat Urretabizkaia (eskuz) eta Jexux Murua (palaz)

dituzte laguntzaileak, eta Ikaztegieta edo Alegiako frontoitan aritzen dira, astean bitan.

Covid 19 dela-eta, martxoaren 14an heldu zitzaigun etxeratze agindua, eta, gainerako alor gehienetan egin zuen bezala, guztiz eten zuen pilota-eskolaren jarduna: bertan behera gelditu ziren entrenamendu saioak eta abian zeuden txapelketa guztiak. Eragina erabatekoa izan da eskola kirolean (8-14 urte bitartean), guztiz debekatua egon delako txapelketak antolatzea orduz gero, eta baita entrenamenduak antolatzea ere aldi luzean. Ekainaz gero federatuen

jarduna ahalbidetu da baina baldintza zorrotzak bete beharrean - talde mugatuak, partidak jokatzeko baldintza zorrotzak eta abar - eta gaitzaren erasoaldiek eragindako gorabeheren menpean, batik bat, antolatutako txapelketa apurrrak jokatzekoan: mugikortasuna dela,



pilotarien konfinamenduak direla eta beste. Horrek guztiak asko zaildu du jarduna. Halere, neska-mutilen gogoia eta gurasoen, udalaren eta pilota-eskolako arduradunen arteko adostasuna batuz lortu da, gaitzari errespetua galdu gabe eta bete beharrekoak ahalik eta ondoen betez, ikasturte berria abian jarri eta martxari eustea: pilota saioak maila guztietan eta federatu mailan antolatu diren txapelketa guztietan parte hartzea.



Eskola mailako txapelketarik gabe

Esan dugun bezala, martxoan alarma egoera indarrean jarri zenean, bertan behera gelditu ziren 14 urte bitarteko gaztetxoentzako txapelketa guztiak eta ez ziren martxan jarri urte osoan. Ez zen egingarria, ezta gomendagarria ere, toki itxietan jende multzo handiak biltzea lekarkeen ezer antolatzeak eta, horrek, pilotari gazte hauentzat garrantzitsuak diren topaketak galarazi dizkigu. Hiru nabarmenduko ditut: Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa, Tolosaldeko VI. Ataria Txapelketa eta XVIII Gabonetako Topaketa.

Federatuetan, emaitza aipagarri batzuk

Federatuei dagokienez, bertan behera gelditu zen Herriarteko Txapelketa – ez genuen parte hartzerik izango bestela ere -, Udaberri txapelketa erdizka jokatu zen, bertan behera geratu ziren Euskal Herriko liga eta kopak eta hainbat txapelketa ezagun, asko atzeratu zen Gipuzkoako Elkarre arteko txapelketaren hasiera eta ez zen lortu 2020an amaitzea. Itxialdia heldu bitartean jokatu zirenetan, halere, nabarmendu ziren apur bat gureak:



Iker Zubeldia, eskuz, jubenil mailako Gipuzkoako buruz buruko finala jokatu zion eman zion hasiera urteari: Irunen jokatu zen urtarrilaren 4an eta Amiano irundarra gailendu zitzaion. Txapeldunorde, beraz.

Harkaitz Murua, eskuz, Lizarrako buruz buruko txapelketako txapeldunordea izan zen lehen urteko infantil mailan. Urtarrilaren 18an jokatu zen finala eta Izagirre elgoibartarra izan zen txapelduna.



Uxue Olanok, paletaz, jubenil mailako Gipuzkoako Udaberri saria irabazi zuen Anne Agirre alegiarra lagun zuela; martxoaren 7an jokatu zuten finala Zumaian, Etxaide-Azkue bikote zumaiarraren aurka.

Uxue Olanok eta Anne Agirrek, paletaz, Euskal Herriko Irekiako 3 mailako finala jokatu zuten Mallabian martxoaren 8an, Larraungo bikotearen aurka. Hauek gailendu ziren eta txapeldunordetzarekin konformatu behar izan genuen.



Iker Zubeldia, eskuz, Donostiako Pilotarien Txokoan 20 urtez azpikoetan txapeldunorde izan zen Zalakain oiartzuerra lagun zuela. Donostiako Atano III. Frontoian jokatu zen finala martxoaren 8an eta Arrilaga zizurterra eta Azkarra-ga elorrioarra gailendu zitzaizkien.



Frontoi Zaharreko XXIV. Txapelketa

Eta etxera itzuliz, osasun krisia egoerak eragindako zailtasunak argitu ondoren, Frontoi zaharreko 24. Txapelketa antolatzea erabaki zen. Herriko pilotazale gazteak arduratu ziren antolaketaz. Ohi bezala egin zen deialdia baina, txikitian (6-9 urte) eta 14 urtez goiko emakumeetan ez zenez gutxienezko izenematerik izan bi mailatan jokatu zen. 28 pilotarik hartu zuten parte osotara: 10 neska-mutil – 2 neska eta 8 mutil- gaztetxoetan (13 urte arte), eta 18 mutil hamalau urtez goikoetan. Egoerak aginduta, finalak aurre



ratzea erabaki zen eta uztailaren 24an jokatu ziren: gatzetxoetan Janitz Irizar eta Harkaitz Murua 18-14 nagusitu zitzaizkien Manex Luluaga eta Martin Elolari, final estuan. Helduetan, Haritz Esteban eta Enaitz Aizpitartek izan ziren txapeldunak 22 eta 20 irabazi ondoren Xabat Artola eta Ander Zubeldiari. Partaideek zein ikustera hurbiltzen zirenek

zentzuz jokatu zuten, osasun egoerak eskatzen zituzten baldintza nagusiak bete zituzten, eta arazorik gabe gauzatu zen txapelketa osoa eta, urtero bezala, pilota giro polita izan genuen.

Jexux Murua Gorostidi

Motzean

2020ko

“MARTXO MOREA”

MARTXOAREN 5ean Agurtzane Belauntzaran bidaiariak “MUNDUMI-NEZ” hitzaldia eskaini zuen Batzarremuñon.

MARTXOAREN 7an “A ZE PAREA” antzerki lanaz gozatzeko aukera izan genuen ireki berri zegoen ostatura afaltzera joan aurretik. Adin guztietako 60 emakume inguru bildu ginen eta primeran pasa genuen.

MARTXOAREN 8ko eguerdiko 12:00etako elkarretaratzearen ondoren, bertso poteoa egin zen.

Pandemia dela eta, egitarauaren barruan aurreikusita zeuden Onintza Iruretaren “BERDEA DA ORAINGO MOREA” liburuaren aurkezpena eta argazki rallya ez ziren burutu.



Martxoak 5. Osteguna:
19:30etan "MUNDUMINA" hitzaldia
Agurtzane Belauntzaran bidaiariarekin.

Martxoak 7. Larunbata
20:00etan Batzarremuñon
"A ZE PAREA" antzerki lanak
21:00etan EMAKUMEEN AFARIA
Herriko Orotokan (zena Udaltzaion
eman behar da Martxoaren 4. arteko).

Martxoak 8. Iazdea
EMAKUMEEN EGUNA
12:00etan ELKARRETARATZEA herriko
plazan. Ondoren BERTSO POTEOA.

Martxoak 14. Larunbata
17:00etan Batzarremuñon
"BERDEA DA MOREA BERRIA"
liburuaren aurkezpena. Orotokan
kuntza idatzaren eskutik.

Martxoak 15. Iazdea
Argazki Rallya
Gara BERTSINTASUNA

ALTZO @
Orotokan Salda Funtzioa,
Muzika Jarduera
eta Liburuak Bazarremuñon Salda



OSTATUAREN INAUGURAZIO

OSPAKIZUNA (2020/03/06)

Udalak Segoretxe birgaitzeko II. Faseko lanak amaitutzat eman eta Ostatuaren ustiaketa Jokin Zabalaren esku utzi ondoren, honek, herritarrei ongi-etorria emateko inaugurazio festa egin zuen. Herriko musikari eta dantzariak "Agurra" rekin eman zioten sarrera Jokinen esker onezko hitzei. Ondoren, ez zen falta izan ez jatekorik ez edatekorik bertaratu ziren herritar, adiskide eta familiakoentzat. Giro ezin hobean eman zioten hasiera etapa berriari, nahiz eta astebete geroago COVID-19ak eraginda ateak itxi behar izan zituzten maiatzera arte.

Motzean

ABERRI EGUNA

(2020/04/04)

2020eko apirilean genuen egoera kontuan hartuta, aberri eguna balkoietan ospatzeko asmoa eta deialdia zabaldu zen, eta Altzon ere, balkoietan ikurrinak jartzera eta ordu jakin batean, arratsaldeko 8.00etan, euskal herrian euskaraz denok batera abestera animatu ginen.



KEA AHOTS TALDEAREN kantaldia (2020/07/26)

Altzoko koruak Santa Eskean bildutako diruari esker, KEA ahots taldearen emanaldia antolatu zuen. Talde hau musikaren esparru zabalean aritzen diren hainbat lagunez osatutako ganbara-abesbatza da. Hamairu kidez osatuta Enrique Azurzaren gidaritzapean aritzen dira. Taldeko kide diren David Azurza, Xabier Sarasola eta Xabier Barriolaren moldaketekin, bi euskal sortzaileen lanak abestu zituzten: Javier Bello-Portu tolosarrarenak eta Jose Mari Iparragirre urretxuarrarenak. Izan ere, lehenengoaren jaiotzaren lehen urteurrena eta bigarrenaren bigarrena bete ziren iaz eta, hori aitzakia hartuta, osatu zuten erreperorioa. Tartean, guretzat oso ezagunak diren kantuak interpretatu zituzten, Gernikako Arbola, Zibilak esan naute edo Hara non dira, esate baterako. Kantaldi bikaina eskaini zuten Altzo Muñoko elizan eta gozatu ederra hartu zuten bertaratu ziren entzuleek!



NORA ARSUAGA ETA DANIEL IRIZAR SARIDUNAK (2020/07/30)

Altzo 2019 Urtekariari buruzko galdera sorta zuzen erantzun zutenen artean Nora Arsuaga eta Daniel Irizar izan ziren zortedunak. Elkar liburu dendetan erabiltzeko 80 euroko txartel bana jaso zuten Karmen Murua Kultura zinegotziaren eskutik. Danielen izenean bere seme Iñigok jaso zuen saria.

UDA GIRO - MOTZEAN

Ekainak 23 - Solstizio festa

Udari hasiera emateko, urtero bezala, San Juan bezperan sua piztu eta herriko dantza taldeak emanaldi polita eskaini zigun. Beraiekin batera, Ane Labaka eta Unai Mendizabalen bertso saioa entzuteko aukera izan zen. Betiko zahagi ardoa, ordea, ez zen gauzatu ahal izan. Egin ahal izan zenaz gozatzeko aukera izan genuen behintzat eta, ez da gutxi!




Ekainak 28 - LGTBIQ+ Eguna

LGTBIQ+ egunaren inguruan Altzoko Talde Feministak eta Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta "Esnatu Naiz" antzerki emanaldia izan genuen Batzarremuñon, Andoni Mutiloaren eskutik. Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da eta identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide besteak beste. Batez ere, ordea, bakoitzaren nortasunarekin bat egin eta aske bizitzeko gonbitea egiten du ikuskizunak.



Uztailak 3 - Urtekariaren aurkezpena

Urtekariaren aurkezpena egin zen Batzarremuñon. Bertan, 2019 urteak eman zituenak eta beste hainbat gai biltzen dituen aldizkariaren nondik norakoak azaldu ziren. Irantz Zubeldia, Maddi Amiano eta Manu Olanok beraiek idatzitako artikuloen aurkezpen moduko bat egin zuten, esaterako. Amaieran, Oihane eta Xabat Artolak zuzeneko musikaz lagunduta, bertso eskolako ikasleek idatzitako bertso batzuk abestu zituzten bertaratutakoek.



Uztailak 7 - San Fermin egunean Azkaratera irteera

San Fermin eguneko ohiturari jarraituz mendi irteera egin zen Azkaratera. Herritarrak Altzoko plazatik abiatu ziren goizeko 8:30ak aldera, bidetara, lagun artean ekiteko asmoz. Urteroko legez, bakoitzak otordua etxetik eraman zuen, eta, Azkaratera iristean denak batera bazkaldu zuten bertan kontu kontari. Egoerak hala bultzatuta ordea, urteroko festa girorik egon ez arren, bertara gerturatu zirenek ederki pasatu zuten.






Uztailak 11 - Irene Caminosekin trial erakustaldia

Eguraldia lagun zela, Irene Caminos eta Jabier Alonsok bere bizikletekin trial erakustaldi polita eskaini ziguten. Adin guztietako herritarrrak bildu ziren bertan, eta haur eta gaztetxoek parte hartzeko aukera ere izan zuten. Amaieran, posterrak sinatu zituzten bi kirolariek.



Uztailak 30 - Trikitilariak eta Errimak bi oinetan

Egoerak hala baldintzantuta San Inazio festak antolatu ezin izan baziren ere, egun horiei kutsu berezia eman asmoz ekintza gauzatu ziren. San Inazio bezperan, eguerdian, Loatzoko eskolako trikitilariak herriko kaleak alaitu zituzten trikiti eta pandero doinuekin. Iluntzean, berriz, Haatik dantza talderaren eskutik Errimak bi oinetan ikuskizunaz gozatu ahal izan genuen. Bertsoa eta dantza uztartzen dituen emanaldi umoretsua da, jendeak gustora ikusi zuen!



Uztailak 31 - Goiz eresia eta bertso jaialdia

San Inazio egunean ohitura den bezala, goizean goiz herriko txistulariek diana eskaini zuten. Iluntzean, berriz, ordua aldatuta bada ere, bertso jaialdi politaz gozatu ahal izan zen eskolako estalpean. Saioan parte hartu zuten bertsolariak Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eli Pagola izan ziren. Gai jartzaile lanetan, berriz, Manu Olano herritarra aritu zen urtero bezala.



Abuztuak 1 - Artea dantza taldea eta herriko musikariak

Abuztuaren lehen egunean, eguerdia girotu asmoz, Artea dantza taldearen ikuskizun ederra ikusi ahal izan genuen. Taldeko txikienetatik hasi eta zaharrenetara, denek erakutsi zuten ikasturtean zehar egindako lanaren fruitua. Gainera, berrikuntza batekin eskaini zuten saioa: herriko musikarien zuzeneko musika. Denen artean emanaldi benetan ederra osatu zuten, bejondeiela!



Irailak 18 - Amak taldea

Uda Giro ekimenari amaiera emateko, Amak taldearen kontzertua izan genuen Altzon. Maixa Lizarribar herritarra, Alaitz Telletxea, Amaia Oreja eta Kristina Solanok osatzen dute taldea eta kantu berriak nahiz lehengoek moldaketak entzun ahal izan genituen trikiti eta pandero doinuez lagunduta, saio ederra izan zen!

Motzean

MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO LANAK

(2020/09/29)

Altzoko Udalak Espainiako gerran eta lehen frankismoan, 1936tik 1945era, herrian gertatutakoa ikertzeko lan sakon bat egiteko proiektua jarri zuen martxan. Udalaren ustez, herritarrek zer gertatu zen jakiteko eskubidea dute, errepresioa nola gauzatu zen, nortzuk eta zergatik jasan zuten.

Aranzadi zientzia elkartera jo dute lan hauek burutzeko laguntza eske. Altzon errepresioa zeinek sufritu zuten jakitea eta giza eskubideen urraketa nagusiak ikertzea izango da Aranzadiren lana. Horretarako, hainbat artxi-bo kontsultatuko ditu: tokikoak (tardean herrikoa), Euskal Herri mailakoak eta baita estatukoak ere.

Baina dena ez dago artxi-boetan. Argazki osatua egin ahal izateko ezinbestekoa da herritarren inplikazioa eta parte hartzea, hauen testigantzak jaso eta etxean dituzten dokumentu edo argakiak biltzea. Ahalik eta herritar gehienengana iristeko helburuarekin, zeregin honetan arituko da Manuel Olano eta Antton Iztueta buru dituen herritarrez osatutako lan taldea. Lan hauen emaitza liburu batean jasotzeko asmoa dago eta zeregin hori ere Manuel Olanoren esku egongo da.

Javi Bucsek, Aranzadi zientzia elkarteko kideak, eta Karmen Muruak, kultura zinegotziak, guzti honen berri eman zuten herritarrentzako eta prentsarako egin zuten agerraldian.



PLAZAZ PLAZA EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE (2020/10/03)

Izan Bidea ekimenaren barruan, euskal preso eta iheslarien etxeratzearen eta bakearen zein elkarbizitzaren aldeko aldarriak eskualdeko plazak bete zituen, baita Altzokoa ere.

Eguraldi iragarpena kontuan hartuta, #650tontor ekimena atzeratzea erabaki zen, eta horren ordez, herriko plazan elkarretzeko deialdia egin zen.





ALTZOKO HORMA IRUDIA

2020ko urriak 16, 17 eta 18





"Ikertze"ren eskutik "BIZIKIDETZARAKO MURALA" proiektua Altzon garatu ahal izan genuen Altzoko udala eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

3 egun eta 2 gau buru-belarri aritu ginen Altzotarrekin batera lanean, bide batez, guztion arteko harremanak sortu edota sendotzen.

Hasteko, 3 arratsaldetan 2 orduko bilerak egin genituen. Lehenengoan, Horma-irudiaren nondik norakoak adosten jardun ginen: GAIA alde batetik, eta Horma-irudiarekin bertako naiz bisitariari zer kontatu eta sentiarazi nahi genien eztabaidatuz. Adostu genuen gaia, hauxe: ETORKIZUNEKO ALTZO. Horixe irudikatu nahi genuen.

Bigarren bileran, partaide bakoitzaren ekarpenak aztertu eta bozetoari forma ematen hasi ginen.

Hirugarren bileran, berriz, behin behineko bozetoa aurkeztu genien eta erabatekoa izan zen denen arteko adostasuna.

Asteburua iritsi zen!! Ostiral gauean proiektorearekin markatu genituen ia irudi guztiak paretan. Tarteka, Txixik, ikastarotxoak eman zizkien herritarrei lan horretan laguntzeko. Tartean, ogitartekoa jan, gaztaina erreak, musika, dantza eta elkarren arteko barre eta algarak lagun, momentu ederrak bizi izan genituen.

Larunbata goizetik hasita, eta Horma-irudia osatzen duten irudi desberdinetan oinarriturik, 2-3 pertsonako talde txoak egin, eta pintzel eta margoekin jolastuz pasa genuen eguna giro ederrean!

Haurrei ere, eskolako sarreran eremutxo bat prestatu genien ia inprobisatuz... eta jo eta ke aritu ziren margoketan egun osoan, beraien irudimenari bide eman eta artelan ederak eginez.

Larunbat ilunabarrean, horma-irudiaren zati handi bat egin bagenuen ere, oraindik aldazio gainean pare bat irudi proiektatu ahal izan genituen behin ilundu zuenean.

Herritar batek ekarritako bidoiean, berriro ere SU goxoa egin eta Seotzeko ogitarteko goxoak janez, giro ederrean agurtu ginen hurrengo goizerarte.

Igandean, egun osoan, azken pintzelkadak ematen aritu ginen hogeiren-bat herritar, denok batera gogotsu.

Bisitari ugari ere gerturatu zen gure lana ikustera, eta bakarren bat parte hartzera ere animatu zen! Guztion arteko giroa ezin hobea izan zen. Horrelako proiektu batek eskatzen duen denen arteko oreka eta bizikidetzak lortu genuen, bai horixe!

Esperientzi paregabea guretzat ere! Jende pila ezagutu eta Altzo eta bertako herritarrengandik gauza asko ikasi genuenaren sentsazioarekin.

ESKERRIK ASKO ALTZOKO HERRIARI ETA LASTER ARTE!

Arantxa Orbegozo "Txixi" eta Eider Epelde Davila.

ETXEAN ZEGOEN, BERTAN

2020ko abuztuaren 14a da, arratsalde eguzkitsu eta beroa, eta Altzoazpiko Salbador deunaren elizako kanpaiak ez ohiko errepikan ari dira: din-dan, din-dan, din-dan. Zera diote: azaldu direla, azaldu direla gure Haundiaren hezurak, bertan, Altzoazpiko kanposantuan; ez Parisen, ez Londresen, ez Madrilen, ez ... Bertan, bertan azaldu dira, askotan zapaldu zuen elizaren atzeko hilerri txikian. Kitto misterioa! Oiartzun handia izan dute kanpai soinuek, eta urrutira heldu dira. Gurean, sentitartekoen lasaitua eta poza, eta herritarron poza gelditu dira.

1.861eko azaroaren 20an zendu zen Migel Joakin Eleizegi Ateaga, Altzoko Haundia. Orduan ehortzitateko gorpuren hezurak aurkitu direla diote kanpaiak handik ia 160 urtera. Arantzadi Zientzialari Elkarteko boluntario talde batek egin du aurkikuntza, eta hori aldarrikatzen dute kanpaiak. Pako Etxeberria antropologo forentse entzutetsuak eta Lourdes Herrasti historialari ezagunak zuzentzen dute lan-taldea; beraiekin batera hori dira Karlos Almortza, bilaketa honen akuilatzailea, hainbat laguntzaile eta baita zientzia alor desberdinetako aditu ugari ere: Morris Tidball-Binz eta Claudia Jerez, Gurutze Gorriko Nazioarteko Batzordeko mediku forentsea eta giza eskubideetan aditua; Rafael Yuste, Brain Initiative-ko neurobiologo entzutetsua; Xabier Uribeetxebarria, adimen edo inteligentzia artifizialean espezialista; eta Leire Mendiluze mediku neurologoa. Jakinminak mugitu ditu guztiak eta beren oporraldiaren zatitxo bat eskaini diote lan honi auzolanean, mokaduaren truk. Merezki izan du, Altzoko Handiaren historiaren azken kate-maila aurkitu baitute batetik, eta zientzia ikuspegiko beste hainbat ikerketa egiteko aukerari atea zabaldu baitiote bestetik.



Bestelako hipotesi edo kontakizun ugari bolo-bolo ibili badira ere, aurkikuntza honek argi utzi du Migel Joakin gorpuzkinak ez zirela Altzotik beste inora eramán, etxean egon dela 160 urtez.

Parisen? Altzoazpin?

Beste herri askotan bezala, Gerra Zibil garaian eta Frankismoaren lehen urteetan gertatutako Giza Eskubideen urraketen ikerketa egiteko asmoa hartu zuen Altzoko Udalak. Arantzadi zientzia elkarteari eman zitzaion, besterik beste, Altzoko Udal artxiiboak arakatzeko eginkizuna, eta horretan ari zen Karlos Almortza historiagilea urteko lehen hilabetetan.



Karlos Almortzak eta udaleko langileek kafea hartzeko egiten duten atsedenaletako batean – esaten da, zenbaitetan, geldialdi horiek direla emankorrenak - atera zen Altzoko Handiaren hezurren destinoaren gaia eta hantxe hasi zen ernaltzen proposamena. Halaxe gogoratzen zituen Karlosek berak, handik hilabete batzuetara, orduko burutapenak: “Datu zehatzak hartzerakoan, zer geneukan? Altzoko



egin zion Altzoko Udalak eskaera ofiziala Aranzadi Zientzia Elkarteari. Familiarekin hitz egin zuen alde zuzenetik udalak, eta herriko erretoreari baimena eskatu zitzaion Altxoazpiko hilerrian lan egiteko. Hala gogoratzen du Karmen Murua Altzoko Udaleko zinegotziak: "Inork ez zuen trabarik jarri, eta oso azkar joan zen dena. Uste genuen udazkenean edo hasiko zirela lanean, baina abuztuaren hasiko zirela esan ziguten Aranzadikoek, hemen baitzeuden indusketan gus-tura parte hartuko zuten zientzia munduko beste kide batzuk".

Altxoazpin!

Aurkikuntzaren ondorengo agerraldietan Lourdes Herrastik azaldu zuen bezala, abuztuaren 12an eman zioten hasiera arakatze lanei. Altxoazpiko hilerrian Ipintza baserrikoen sendikoak lurperatu ohi ziren hilobian hasi ziren lanean: "Lehen zundaketan zoruraino iritsi ginen, metro bateko sakoneran; hor ez zegoela konturatu ginen, eta hezurte-gian begiratzeari ekin genion". Hilerrian hilobiratua izan bazen eta gerora atera bazuten, lurperatzaileak hezur horiek hezurte-gian utziko zituztela uste zuten: Hezurrak banan-banan begiratzen hasi ziren. "Gure helburua aparteko hezurrak topatzea zen. Apartekoak; handia zen heinean, handiak behar genituen topatu". Lourdes Herrastiren hitzak dira hauek ere.




Abuztuaren 14an, arratsaldean, topatu zen hezurte-gian ez-ohiko neurria zuen lehen hezurra: besahezurra, humeroa. Emozioa eta ilusioa: "Hura izan zen lehena. Hezurrak ateratzen jarraitu genuen, jada ilusio izugarriarekin, bage-nekielako gehiago egon zitezkeela". Segituan deitu zioten Txomin Rezolari, alkateari, eta honek jakinarazi zien senitartekoei. "Berria zela eta, Pilarrek kanpaiak jo behar zirela esan zuen. Hezurte-gian lanean ari ginela, entzun genituen kanpaiak; aurkikuntzaren berri izan zuten denek horrela", gogoratzen zuen Herrastik.

Aurkitutako lehen besahezur haren ondoren, hezurdu-rako beste hainbat atal aurkitu zituzten. Begi zorrotza eta lan metodologia zehatz bat bitarteko hezurduaren %80 osatu zuten, tartean 64 zentimetroko izterrezurra eta tamaina harrigarriko matrailezurra. Xehetasunetan sartuta, honela zioen Lourdes Herrastik: "Hezurdu osoaren adibideren bat daukagu. Falangeak ez ditugu, baina oso normala da hori, lurperatu eta berriro kanporatzean, tamaina txikiko hezurrak direlako gehienetan baztertu eta galtzen direnak; horiek dira ez daudenak".

azpin lurperatu zela 1861ean; dokumentua genuen. Hori zen genekien gauza ziur bakarra. Lapurtua izan zela, erosiak izan zirela, Madrilan zeudela, Londonen, Parisen... Horiek frogatzeko ebidentziarik ez zegoen, beraz, zegoen ebidentzia bakar horretatik abiatzea proposatu genion Udalarari".

Azken urte hauetan, nagusiki Handia filmaren inguruan sortu zen ikusminak eraginda, ez da gaia mahai gainean jarri den lehen aldia. Aurreko udal taldeak ere egin zuen kontsulta Aranzadin. Orduko hartan, Pariseko giza museoan dagoen identifikatu gabeko pertsona handi baten hezurdu bat aztertzea, gutxi gorabehera Migel Joakinen neurrikoa, eta haren DNA familiarekin alderatzeko aukera aztertu zen, baina erabakitzea iritsi gabe.



Oraingoan, bai! Aintzakotzat hartu zituzten udal agintariak Karlos Almortzaren eta bere kafe-lagunen arrazoiketak eta aurkeztutako ebidentziak, eta Aranzadi Zientzia Elkarteari harremanetan jartzea erabaki zen. Karlos Almortzaren bidez Lourdes Herrastiren eta Pako Etxeberriaren taldearekin harremanetan jarri ondoren, uztailearen 30ean

Horrez gain, zientzialarien esanetan begi bistan zegoen "artrosia eta osteoporosia" pairatu zituela baina, hala eta guztiz, hezurak "egoera oso onean" zeudela adierazi zuten. Lourdes: "Jatorriz, osteoporosia ahulduta zeuzkan hezurak. Kasu honetan, nahiko egoera onean topatu ditugu halere. Sorpresa izan da, onerako".



Oihartzuna

Urrutira iritsi ziren, bai, Altoazpiko elizako kanpai soinuak. Oihartzun handia izan zuen aurkikuntzak bertan eta inguru zabalean. Toki handia hartu zuen egunkarietan, irratietan, telebistetan eta nola ez, sare sozialetan. Ikusmin horri erantzuteko prentsaurrekoa antolatu zuen Aranzadik abuztuaren 17an, hilerrian bertan. Izugarritzko arrakasta izan zuen eta komunikabide ugari ez ezik, bertan izan ziren Miel Joakinen sendikoak, udal ordezkariak, herritar batzuk eta albisteak erakarri zituen beste hainbat ere.

Handik aste batzuetara, irailaren hasieran, Batzarremuñoko plazan antolatu zuen Udalak ekitaldi berezi bat aurkikuntzaren inguruko xehetasunak emateko herritarrei.



Karmen Murua zinegotziak eta Karlos Almortza, Lourdes Herrasti eta Pako Etxeberria Aranzadiko kideak arduratu ziren azalpenak emateaz; horiekin batera, egoera onenean zeuden hezurak bertatik bertara ikusteko aukera eman zitzaizkien herritarrei eta baita gure hezurdura ezagutzeko ariketatxo batzuk eginarazi ere. Ekitaldi honetara gonbidatuak zituzten eta hitz batzuk egin zituzten David Azurtzak eta Aitor Arregik, hurrenez hurren, Altzoko Handia txotxongilo operaren egile eta zuzendaria eta Handia film entzutetsuaren zuzendaria, eta Luis Angel Sanchez ikerlariak, Altzoko Handia. Euskaldun mitiko bat XIX. mendeko European liburuaren egileak.



Eta orain zer?

Hezurak Aranzadi zientzia elkartearen esku daude orain. BI bide lerro daude zabalik: erreplikarena eta ikerketarena. Lehenari dagokionez, hezurduraren erreplika bat egitea da asmoa: Aranzadi Elkartearen asmoa da hezurren hiru dimentsioko kopiak egitea eta, ahal bada, eskeleto osoa eraikitzea. Hezurak familiari entregatuko zaizkio.

DNA laginena da beste bidea, ikerketarena: Biocruces eta Biogune ikerketa zentroek interesa agertu dute. Akromegalia eta erraldoitasun gaixotasunen arteko ezberdintasunak ari dira ikertzen, eta hezurren laginak lortu nahi dituzte, ikertzeko eta ikusteko zerk eragin zion horrelako tamaina izatea: erraldoitasunak, akromegaliak... Zientzialariek, oraindik informazio asko atera dezakete Altzoko Handiaren hezurretatik. Charles Byrne erraldoi irlandarraren DNA aztertuta, esaterako —Eleizegi baino 35 urte lehenago hil zen—, akromegalia gaitza eragiten duen mutazio bat identifikatu dute, eta hori Irlandan milaka familian daukatela ondorioztatu. «DNA osoa lortuko balitz, posible litzateke ilearen kolorea, begiena... ere jakitea. Baina haiek benetan azter dezaketena gaixotasuna da: bat-batean sortu ote zitzaion edo familiako zerbait zen; genomak ba ote zuen zerbait, alegia, hereditarioa ote zen, edo ez», azaldu du Errastik.

ESANAK

Pilar Usain Elizegi, Migel Joakin Eleizegiren senidea

Pozik gaude bertan agertu direlako. Ez genekien ziur hilerrian lurperatuta zegoenik, ziurtatzeko modurik ere ez genuen. Orain, azaldu egin dira eta horrek lasaitasun handia eman digu.

Karlos Almortza, Arantzadiko kidea eta proiektuaren promotorea:

Hezurak lapurtuak izan zirela dioen istorioa, agian, hezurdura babesteko asmatutako istorioa izango da. Ziurtatzerik ez dago, baina hezurak lapurtu zituztela zabalitzen bazen, jendea ez zen bertara gehiago begiratzera joango.

Lourdes Herrasti, Arantzadiko taldearen zuzendaria

Kontuan hartu behar dugu, lurperatuak izan zirela eta gero atera egin zirela, desartikulatu egin zela eskeletoa eta hala jarri zituztela hezurtegian. Mugimendu horiek guztiek kalte egiten dituzte askotan hezurak. Arreta handiz ibili ziren mugitzerakoan».

David Azurzak, Altzoko Handia operaren zuzendaria

Koldo Izagirreren testua oinarri hartuta osatu nuen opera etxeko txikientzat. Aurkikuntzaren berri izan orduko, Azurzak Izagirreri idatzi nion, eta, operari erreferentzia eginenez, lapurrak eta piratak ez egonda, agian amaiera aldatu behar zitzaioela esan nion.

Aitor Arregi, Handia filmaren zuzendaria

Elkarrizketatan beti esaten genuen sentitzen genuela gure lana Migel Joakinen mitoaren hazkundearen azken zentimetro horiek zirela, eta handitzen jarraituko zuela. Nik uste dut, honek suposatzen duela, batetik, 'istorioa horrelaxe da' esatea, eta, bestetik, bere mitoa handitzen jarraituko duenaren sentsazioa ematen dit.

Karmen Murua, zinegotzia

Guretzat oso garrantzitsua zen herritarrei hezurak bertatik bertara erakusteko aukera ematea, segur aski, ez dutelako berriro ere aukera hori izango. Hezur horiek babestu eta gorde egin beharko dira, eta ez dira inoiz inon ikusgai jarriko. Familiari dagokio zer egin erabakitzea.

Txomin Rezola, alkatea

Memoria historiakoarekin ere badu honek. Karlos, memoria historikorako lana egitera etorri zen Altzoko Udalera, eta niri iruditzen zait hau ere lotuta dagoela. Memoria historikoaren helburuak dira egia, justizia eta erreparazioa, eta orain Handiaren inguruko zurrumurru horiek amaituta, balorea eta justizia eman behar zaio Handiaren bizitza horri, osoari».

Egilearen oharra: artikulu hau osatzeko iturri eta testigantza propioak ez ezik, Tolosaldeko Atariak eta Berria egunkariak argitaratutako edukiez baliatu naiz.

Jexux Murua Gorostidi



BIRUSAREN IPUINA

Pandemia mundial baten erdian gaude. Ezin gara etxetik irten, beharrezkoa ez bada. Mundua, Txanogorritxuren ipuineko basoa lez, arriskutsua bihurtu da. Izan ere, otso gosetia beharrean, birus hiltzailea dabil, hor zehar. Hala ere, bestelako mozorroa aukeratu du birusak, ez da amonaxo gaixoz mozorrotu; hori baino originalagoa dugu gure pelikulako gaiztoa, horren ordez, ikusezinenaren mozorroa aukeratu du; eta inork uste ez duen lekuetaraino iristen ari da.

Egoera honen aurrean, mendi puntan bizi den nire amonari, beharrezkoak zaizkion zenbait enkargu eramateko eskatu dit amak. Ohartzerako ni bihurtu ote naiz Txanogorritxu? Txanorik ez, baina antzeko funtzioa beteko duen auto gorrian sartu naiz, amonaren etxera noa amonaxoa ikustera.

Azkeneko bidegurutzera iritsi naizenean, hara non ikusi ditudan bi Ertzain, errepide ertzean. Gelditzeko agindua eman didate, leihoa jaitsi eta: Nora zoaz (txanogorritxu)? Eta nik: amonaxoa ikustera, etxetik atera ezinda dagoenez, beharrezko gauzak ekartzera natorkio.

Momentu horretan, Ertzaina, otso gosetik salbatuko nauen ehiztariaren pertsonaia antzezten ari dela iruditu zait. Baina, tira; hasteko, antiespezista naizenez, ehiztariak ez ditut gustuko; baina ezta herriaren zaintzailetzat hartzen diren bi hankako txakurrak ere. Orduan, nire benetako etsaia nor ote den pentsatzen, zalantzatí geratu naiz; otsoa bera baino, ehiztari hauek okerragoak ez ote diren. Egoera aprobetxatuta kontrol soziala areagotu eta eskubide politikoak urratu dizkiguten hauek, gaztetxe eta etxegabeak desalojatzeko aprobetxatu dutenak, kaleko jendea jipoitu dutenak; zilegimendu osoz, euren botereaz abusatzen aritu diren hauek.

Argitu zaizkit zalantzak, otsoa ez da hiltzaile bakarra, hiltzeko modu asko baitaude.

Oihane Artola Nazabal

Motzean

KOPLARIAK KOPLARI

(2020/10/23)

Xabier Amuriza eta Agus Barandiaranek prestatutako Koplariak Koplari emanaldia izan genuen herrian. Xabier Amurizak azken hamarkadetan zehar batu eta sortutako koplak ardatz hartuta, entzulegoari koplak zahar eta berrien azalpena eta herri musikan izan zuten eragina erakustea izan zen ekitaldi horren muina; Agus Barandiaran (Korrontzi) bidelagun hartuta, bere trikitiaren bidez, musika jarri zien koplak horiei eta partaide biak kantuan entzuteko aukera izan genuen.



“LUZE EDO MOTZ”, umorezko emankizuna

(2020/10/30)

Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraireren ikuskizun berriaren aurre-estreinaldia izan genuen Altzon. “Bakean Dagoenari Bakean Utzi” emankizunaren haritik jarraituz, generoa umore-gai hartuta, elkarrekin jositako bost bakarrizketa eskaini zizkiguten.

Bere bizipenetatik eta egunerokotasunetik sortutako gaiak umorez aireratu zituzten Mirarik eta Idoiak. Hilekoa, menopausia, ligatzeko kontuak edota sexua izan zituzten hizpide besteak beste, “emakumeen gauzak” direla eta ohikoan ezkutuan egon ohi izan diren gaiak. Han bildutako Ikus-entzuleen barreak eragiteaz gain, umorea genero gaiak lantzeko modu gozagarria eta eraginkorra izan daitekeela erakutsi ziguten.

EUSKAL HERRI HERBEHEREETA

Duela bi urte eta erdi inguru Herbehereetara etorri nintzen eta orduz geroztik Bredan bizi naiz. Breda, Herbehereetako hegoaldean kokatuta dagoen hiria da, Ipar brabanteko probintzian. Herbehereak 12 probintziz osaturik daude eta probintzi horiez gain. Herbeheretako hizkuntza ofiziala nederlandera da eta hizkuntza anglosajoia da. Herbehereak eta Euskal Herriak, hizkuntzaren arloan, badute amankomunean berezitasun bat. Frisian, herbeheretako ipar partean kokaturik dagoen probintzian, bi hizkuntza ofizial daude: nederlandera eta bertako hizkuntza, frisiera. Azken hau probintzi honetan baino ez da hitz egiten eta 453.000 pertsonen baino ez dute erabiltzen. Frisiera eskolan irakasten dute, nederlandera bezalaxe.

Lurralde berri batera emigratutakoan, benetan integratu ahal izateko modurik onena, bertako hizkuntza ikastea da. Horixe egin nuen nik, hizkuntza ikastaroetan eman nuen berehala izena. Astean 6 orduz hizkuntza eskolara joaten nintzen eta nire egunerokotasunean hau erabiltzen hasi nintzen. Lehen hilabeteetan, hitz batzuk baino ez nekizkien eta nederlanderekin bakarrik komunikatzea ia ezinezkoa zitzaidan. Hala ere, herbeheretan ia edonork hitz egiten du ingelesa eta leku publikoetan nederlandera guztiz ez duzula menderatzen ikusiz gero, berehala jotzen dute ingelesera. Hau noski, hasiera batean lagungarria da eta beraien partetik oso atsegina. Baina, hizkuntza bat ikasteko modu bakarra erabiltzea izaten da, eta modu honetan ez zara erabat behartuta sentitzen nederlanderaz hitz egitera. Nire bertako lagunek nederlandera bezain ongi menderatzen dute ingelesa. Beraz, lehen hilabeteetan taldean geundenean ingelesez hitz egiten zidaten, baina, beren artean gehienetan beraien hizkuntzara jotzen zuten. Une horietan, belarria ahalik eta gehien ireki eta hitz batzuk neureganatzen eta elkarrizketaren haria jarraitzen saiatzen nintzen. Denboraren poderioz eta hau praktikatu, ulertu bakarrik ez, nederlanderaz hitz egiten hasi nintzen eta gaur egun,



TIK ARA



reen 1/2B oktober 2020

adierazi nahi dudana komunitzeko gai naiz. Bertakoek asko eskertzen dute eta baita go-raipatu ere, denbora gutxian hizkuntza ikasi izana. Lorpen honek, lehen hezkuntzako irakasle bezala lan egiteko eta bertan integratzeko atea ireki dizkit.

Hizkuntza eta hezkuntza. Herbeheretako hezkuntzak europa mailan oso izen ona dauka. Amsterdam, Delft, Leiden eta Utrechtoko unibertsitateak oso ezagunak dira munduan zehar. Euskal Herrian ez bezala, ia ikastetxe guztiak publikoak dira. Lehen Hezkuntza edo oinarritzko hezkuntza lau eta hamabi urte bitartekoa da; 1go mailatik hasi eta 8.mailara. 1go maila aurretik, haurreskola moduko ikastetxeetara joaten dira haurrak eta normalean astean pare bat egunez baino ez. 5 urtetik aurrera haurra eskolartua izatea, ordea, nahitaezkoa da.

Herbehereetan, Euskal Herrian bezala, irakasle izateko lau urtez unibertsitate ikasketak egitea nahitaezkoa da. Nik Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketak burutu nituen eta hemen 4 eta 12 urte bitarteko haurrekin lan egiteko aukera ematen dit. Haur gaztetxogoeekin lan egiteko goi mailako modulu bat egitea nahikoa da. Herbehereetara iritsi nintzenean nire ametsa bertako hezkuntzan lan egitea zen. Zailtasun "txiki" bat baino ez nuen, hizkuntza. Ikastetxe desberdinekin kontaktuan jarri nintzen hizkuntza diploma gaintitu nuenean eta hainbat elkarrizketa egin ondoren, lehen eta bigarren mailako haurrekin (4 eta 5 urte) lan egi-



teko eskaintza jaso nuen eta orduz geroztik bertan irakasle naiz (kleuterjuf nederlanderaz). Ikasgelan 26 haur dauzkat, ez da kopuru txikia irakasle bakarra izateko. Hori dela eta, asteen bitan laguntzaile bat izaten dut gelan hurrekin laguntzeko eta haur bakoitzari arreta haundiago eskaini ahal izateko.

Baina, dena lana ez denez, denbora librean aspertzeko aukerarik ez dago hemen. Lurrealde guztiek bezala, herbeheretarrek beraien kultura eta ohiturak dituzte. Arlo sozialean, lagunekin etxeetan hitzartzeko ohitura handia dago. Gazteak, 18 edo 20 urte betetzen dituztenean gurasoen etxetik alde egin eta unibertsitatetik gertuago bizi ahal izateko, beraien kabuz bizitzera joaten dira. Normalean, unibertsitatetik gertu dauden pisuetara. Hau finantzatu ahal izateko, gobernuak diru laguntzak ematen dizkie gazteei, eta horrez gain, ia gazte gehienek ikasketak lanarekin uzartzen dituzte.

Kulturarekin jarraituz, Herbehereak ezagun dira, besteak beste, bizikletaren erabilera handiagatik. Ohikoak dira, batik bat, bigarren eskuko bizikletak eta hauek jabe askoren

eskutatik igarotzen dira. Hemen, haur zein helduak, bizikletarekin mugitzen gara lagunengana joateko, erosketak egitera edo lanera joateko. Bizikletak nonahi aurki ditzakegu Herbehereetan. Gazteak eskolara edo lanera bizikletaz joaten dira eta eguraldi txarra ez da aitzakia bizikleta ez hartzeko. Herbehereetan, zoritxarrez, sarritan egiten du eguraldi txarra eta lanera edo eskolara bustita ez iristeko, euritako galtza eta jaka janzten ditugu ohiko erropen gainetik. Tren eta autobus geltokietan bizikletak uzteko apar-kalekuak daude. Utrecht munduko bizikleta aparlekuri handiena aurki daiteke eta 12.500 bizikleta sar daitezke.

Hotza, eguraldi txarra eta zero grisa beste ezaugarrietako batzuk dira. Neguak eta udazkenak hotzak eta tristeak izan ohi dira, egunak argi ordu gutxi izaten ditu. Udak eta udaberriak, aldiz, epelak izan ohi dira eta egunak luzeak. Lehen eguzki izpiekin, jendea berehala ateratzen da tabernetara, parketara, hondartzara... Ez dago eguzki izpirik alferrik galterik.

Neguak epelagoak bihurtu dira baina aurtengoa, berezia izan da. Azken hamar urteetako negurik hotzena. Otsaileko lehen bi asteetan -10 eta -15 °C arterainoko temperatura



hotza egin du eta holandarrek izotzetako patinak hartu eta bertako lakuetan patinatzeko aukera izan dute, nik ere bai noski. A zer zortea nirea!

Eta ezin amaitu Herbehereetako tulipez hitz egin gabe. Hemen loreak oso maitatuak dira eta etxe gehienetan aurki dezakegu lore sorta eder bat. Bai supermerkatuan eta baita merkatuan ere, lore postuak egoten dira modu onean. Loreek alaitasuna ematen omen dute eta holandarren etxeak alaitasunez beteta egoten dira.

Zoragarri bizi naiz Herbehereetan eta ez naiz damutzen hona etorri izana, baina, badaude nire herritik faltatzen botatzen ditudan gauzak ere. Bertako lagunak eta familia esa-

terako. Gaur egun, hegazkinez bi ordu eta erdian Billboko aireportuan naiz, baina, egunerokotasunean ez da gauza bera. Bestalde, etxera bueltatzen naizenean amak prestatutako eltzetik jatea baina gauza hobeagorik ez dago! Horrez gain, egun osoan euskaraz hitz egitea faltan botatzen dut. Ia pentsatu beharrik izan gabe eta akatsen bat egingo dudan beldurrik eduki gabe. Zorionez, orain arte Herbehereek zorientasuna baino ez didate ekarri eta bai Euskal Herrian zein Herbehereetan etxean bezala sentitzen naizela esan dezaket.

Aintzane Galarraga Lizarazu



Baso-igel gorria, ezezagun hori

Altzoko faunari buruz galdetu ezkerro inork gutxi aipatuko lituzke bertako anfibioak. Izan ere hain animali txikiak eta iheskorak izanik, oharkabean pasa daitezke. Baina horrek ez du esan nahi garrantzirik ez dutenik, are gehiago, Altzoko igel edo zapoak beste animali asko baino bereziagoak dira. Espezie arruntenak herri inguruan bizi diren Apo arrunta ("Bufo Bufo") eta Txantxikua ("Alytes obstetricans") dira, baina bada Otsabio inguruetan aurkitu daiteken hirugarren espezie bat ere, murrizta bezain berezia: Baso-igel gorria ("Rana Temporaria").

Gorritzita koloreko igela da, tamaina ertainekoa; arrak 50mm-ren bueltan ibiltzen dira, emeak aldiz 95mm-ra iritsi daitezke. Bizkarraldeko kolorea aldakorra da eta tonu nabar ilunak, gorrixkak, txokolate antzekoak edo grisaxkak har di-

tzake. Tamaina desberdinetako orban irregularrak izan ditzakete baina ez da ohikoena izaten. Orban handi ilun bat izaten dute bereizgarri nagusia, zeinak aurpegiko zati bat estaltzen dien mozorroa bailitzan: begia eta tinpanoa.

HABITATA

Bere habitata baso hezeek osatzen dute eta mendiak behaldek baino nahiago izan ohi ditu. Errekak, putzuak edo giro hezea dagoen lekuan egotea gustatzen zaio eta ondo jasaten ditu tenperatura baxuak. Baldintza hauek guztiak eskaintzen dizkio Otsabiok eta horri eskerrak bi ugaltoki ezagutzen ditugu bertan: bata, Otsabioko tontorrerako bidean dagoen "Basurde-putzu" bezala ezagutzen dugun lekua eta bestea Artaingo bordatik Austokietarantz doan pistan dauden hiruzpalau putzuk osatzen duten gunea.



UTM: 30T NW X=576643,44 Y= 4772259,36 Basurdeputzu bezala ezagutzen dugun gunea, Otsabioko tontorre-
 ra iristeko igo behar dugun malda handia hasten den le-
 kuan kokatua dago. Alertze baso handi baten azpian hain
 zuzen ere. Bi putzuk osatzen dute ugalketa gune hau. Le-
 hena, izenak dion bezala basurdeek freskatzeko erabiltzen
 duten putzua da eta horregatik ohikoa da bertan basurde
 oinatzak aurkitzea. Sakonera txikiko putzua den arren ez
 da erraz lehortzen, eguzki izpiek basoan zehar sartzeko
 zailtasunak izaten baitituzte. Bigarren putzua lehenengoa
 baino pixka bat gorago dago. Putzu txikiagoa da, baina ez
 horregatik eskasagoa, bertan ere arrautza kopuru handiak

ernaltzen baitituzte igelek.

UTM: 30T NW X=576584,7 Y= 4771305,04 Bigarren er-
 nalketa gunea Artaingo bordatik Austokietako gainerantz
 doan pistan dago kokatua. Lau putzuz osatutako gunea
 da, hiru elkarren ondoan daudelarik eta laugarrena bi metro
 eskasetara. Sakonera txikiko putzuak dira lauak eta, beraz,
 eguraldiaren arabera aldakorrak izan ohi dira. Lurra buztin
 iragazgaitz batez osatua dago, hau da, ura ez da lurrazpira
 filtratzen, eta honen ondorioz putzuak eratzeko baldintza
 ezin hobekak eskaintzen ditu, euri gutxi eginagatik segituan
 betetzen baitira. Lau putzuetan erruten dituzte arrautzak
 baso-igel gorriek.



UGALKETA

Baso-igel gorria neguaren bukaeran ugaltzen da. Ugalketa putzu batean edo ura pilatzen den lekuan gertatzen da, ia beti gauzez. Bertan arra uretan sartzen da eta emeari deitzen dio.

Arrautzak erruteko modua bitxia bezain ikusgarria da.

Bi sexutako igelak elkartzen direnean "amplexus" bezala ezagutzen den prozesu baten bitartez ugaltzen dira. Arrak emearen gainean jarririk indar handiz estutzen du, eta horren ondorioz emea erruten hasten da. Momentu hori, arrak, bere haziaren bitartez arrautza horiek ernaltzeko aprobetxatzen du. 700 eta 2000 arrautza artean ernaltzen dituzte, masa gelatinoso baten erara uretan geratzen direlarik. Ugalketa bukatu eta denbora tarte bat pasa ostean igel gorri gehienak basora itzultzen dira. Ez denak, eme batzuk ugalketak sortutako nekearen ondorioz hil egiten baitira.


Denbora aurrera joan ahala arrautzen barruko puntu beltzak, gerora zapaburu izango direnak, handitzen joaten dira eta bidean hilik geratzen direnek kolore beltza galtzen dute zuri bilakatuz. Hilabete baten bueltan egoten dira uretan, tenperaturaren arabera.

Gerora 46mm izatera iritsiko diren zapaburuak, jaiotzen direnean 6 eta 9mm bitartean neurtzen dituzte. Beltzak izan ohi dira, eta argitu egiten dira egunak igaro ahala.

METAMORFOSIA

Aipatutako zapaburuak metamorfosia jasaten dute igel bihurtzeko: Jaiotzen direnean alde batetik buztana iza-





ten dute, uretan egin beharreko mugimenduak errazteko eta bestetik brankioak arnasketarako. Hazten hasi ahala, burua garatzen joaten zaie. 3-4 asteren buruan buztana eta brankiak galtzen hasten dira lurreko animalia bihurtzeko prozesuan sartuz, eta, honekin batera, hankak agertzen hasten zaizkie. Buztanaren desagertze prozesua amaitzen denean, eta hankak guztiz hazi zizkienean, igel gazte bihurtzen dira eta basorantz mugitzen dira putzua alde batera utziz.

MEHATXUAK

Garai batean bere mehatxurik larriena gizakien partetik jasaten zuen ehiza edo harrapaketa izaten zen. Harrapatu ondoren atzeko hankak moztzen zizkieten eta gisa horretara uzten zituzten beraien kaxa hil arte. Aipaturiko hanka horiek oso estimatuak izaten ziren jateko. Hortik dator erdaraz esaten den eta garai batean asko erabiltzen zen "ancas de rana". Gaur egun jarduera hori erabat debekatua eta jazartua dago isun handiak tarteko.

Otsabio inguruko putzuei dagokienez, lehenengo gunea, hau da, basurde-putzua, oso leku aproposa da eta beraz ez du arazo handiegirik suposatzen. Lehen esan bezala gunea hau alertze baso batean dagoenez, zuhaitzek eguzkitik oso ondo babesten dute eta ondorioz putzua heze mantentzen da ia beti. Neguko egun hotzetan putzuaren goialdea izotz geruza handi batez estalia geratu ohi da, baina ez da arazoa izaten aipaturako espeziearen arrautzentzako, oso ondo jasaten baitute muturreko hotza. Beraz putzu honi dagokionez daukan arazorik handiena harraparien mehatxua da. Basurdeak eta lepahoriak dira baso-igel gorrien etsairik handienak, arrautzak agerian daudenez nahiko erraz bereganatzen baitituzte.

Artain ondoko putzuetan aldiz arazo gehiago izaten dute. Alde batetik arazo naturalek eragiten die eta bestetik gizakiaren kalteak jasaten dituzte. Izan ere, gunea honek ez du babestuko duen zuhaitzik inguruan eta beraz eguzkiak gogor jotzen du sarritan. Horren ondorioz putzua lehortzeko zorian egoten da askotan eta zapaburuak hil egiten dira. Honi gehitu behar zaio gizakien faktorea, izan ere, putzu hauek pista batean daudenez, ibilgailu handiak pasatzen dira tarteka (todoterrenoak, traktoreak, motoak...) eta hauek sekulako kaltea eragiten die arrautza edota zapaburuari, pasera bakoitzean azpian harrapatutako guztia akabatzen baitute. Arrazoi horregatik erreproduzio garaian aipaturako ibilgailuak erabiltzea ekidin beharko litzateke leku honetan.

Bioaniztasuna aberatsa izan dadin, espezie guztiak kontutan hartzea beharrezkoa da. Anfibioak dira arlo horretan galera handienak jasaten ari diren espezieak eta, beraz, arreta bereziz zaintzea tokatzen zaigu. Herrian baso igelgorria bezalako altxor bat edukitzea zorte handi bat da. Zain dezagun

Pello Olano Lopez

EUSKARALDIA

ALTZON 365 EGUN

EUSKARALDIA 2020: GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia. Euskal Herri osoan burutu da, gizartearen gune guztietara zabaldu da eta azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean, 15 egunez, burutu da. 2020an, norbanako bezala ahobizi edo belarriprest izanez parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartu ahal izan dugu eratu diren hainbat arigunetan.





Oraindik euskaraz egiteko ohiturarik ez duenak, pauso bat ematea besterik ez luke. Eutsi egin behar zaio, saiatu, eta aurrera egin."

Eta helburu hauek nabarmendu zituen: "Orain bi urtekoa hobetzen saiatu, eta beste herriei begira eredu izatea. Euskaraz bizi eta lan egitea posible dela erakutsi behar dugu."

Antolaketaarako baldintzak ez ziren onenak, ezta ariketa



Galtzaundi Euskara Taldearen bidez heldu zitzaigun aurreneko ekimen honetan parte hartzeko gonbidapena eta Altzon ez genuen zalantzarik izan. 421 udalerrik eman dute izena Euskal Herrian eta 24k Tolosaldean; horietako bat izan gara. Kultura Batzordea izan da ekimena koordinatzeko gunea eta Mari Murua arduratu da Galtzaundi Euskara Taldeak eraturako koordinazio guneetan parte hartu eta lotura egiteaz.

COVID 19-a honetan ere ez da sozio ona izan, asko zaildu baititu lanak. Honela azaltzen zuen Mari Euskaraldiari buruz Galtzaundik udalen laguntzaz atera zuen aldizkari berezian: "Udan zehar online egin genituen bilerak. Eta irailaz gerotzik berriz ere aurrez aurre biltzen hasiak gara, segurtasun neurriak betez. Pixkanaka, baina gelditu gabe. Entitate ezberdinei zuzendutako bilera antolatu genuen Altzon, eta talde ugari egin zuen bat. Erantzuna ona izan da. Entitateek ekimenean izena emateak barruko norbanakoek ariketan parte hartu behar dutela esan nahi du; norbanako horiek egingo dutela lan. Ea guztion artean emaitza positiboa lortzen dugun. Entitateen izen-ematea amaituta, eta norbanakoena martxan dagoela, gu ere berotze lanekin hasiko gara herrian. Altzo herri txikia da, euskalduna, arnagunea. Horretaz jabetu, eta besteentzat ere eredu izan behar dugu".

indartsua egiteko ere, osasun krisiak eta honen eraginez hartu behar izan diren neurriek asko aldatu eta zaildu baitituzte harreman moduak. Halere, egin zen ahalegina herri-tarrak eta entitateak (elkarteak, enpresak, talde antolatuak, ...) informatu eta parte hartzera animatzeko. Horren lekuko dira, etxe guztietara banatu zen aldizkari berezia Euskaraldiaren edizio berri honen xehetasun guztiak emanez, Udalaren laguntzaz enpresa guztietara bidalitako informazioa eta gonbidapena, UEMA-ko teknikariak azaroaren 12an eskaini zigun trebakuntza saioa eta azaroaren 15ean herriko plazan antolatu genuen izenemate ekitaldia. Bestalde, Galtzaundi Euskara Taldeak irailaren 26an Tolosako Leidor antzokian antolatu zuen *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* ekitaldian hartu genuen parte eskualdeko beste udalerririk guztietako ordezkariekin batera.



Ekimenarekiko herrian somatzen zuen giroaz, berriz, haiz zion: "Berrogeialdian, etxean sartuta egon ginen garaian, giro polita sortu zen Euskaraldiaren baitan leihotetan koloretako borobiltxoak jarriz nahiz bideoak zabalduz. Orain, norbanakoen izen-ematearekin, eta herri mailan aktiboki ekintzak antolatzen hasten garenean piztuko da giro hori berriz ere. Euskaraldian parte hartzera animatuko nuke jendea. Orain euskaraz hitz egitea gerora begirako lana baita.

Honek guztiak Mari aipatutako helburuetako bat behintzat, neurgarria dena, betetzea ekarri zuen eta 2020an hobetu egin ziren 2018ko parte-hartze kopuruak: 143 lagunek eman genuen izena 2020an eta 125 izan ginen 2018an. Nabarmenezkoa da ere, talde ariketan parte hartzeko erabakia hartu zutela 8 entitatek: Udalak, Imaz Bertsolaria Eskolak, Beroak feminista taldeak, Ostatuak, Elordi Elkarateak, Sabekoetxeak eta Calcinorrek.



Esan genezake, Altzon, aurtengo joeraren kontrara ibili garela, herri gehienetan parte-hartze kopuruak 2018koak baino baxuagoak izan baitira: Tolosaldean 8.087 euskaltzaleek eman genuen izena 2018an, eta 7.035 izan gara 2020an; Euskal Herrian 225.000 lagunek eman genuen izena 2018an, eta 179.780 lagunek eman dute 2020an.

Konstatazio bat da hori. Ez dugu datuen interpretazioa sakonik egingo. Zure esku utziko dugu, irakurle, egiteko hori. Argi dagoena da altzotar askok gisa honetako ariketan parte hartu beharra sentitu dugula. Euskaraz bizi eta lan

egitea posible dela erakutsi behar dugula zioen Marik; arnagunea garela, horretaz jabetu behar dugula, eta bestentzat eredu izan behar dugula ere bazioen. Ardura handia dela hori pentsa dezake norbaitek eta zama bezala hartu, baina egiteko eder gisa ere har daiteke eta harrotasunez eraman. Abian dago 2022ko edizioa.

Jexux Murua Gorostidi

Motzean

Azaroaren 25a Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko, ondorengo ekintzak antolatu ziren:

Azaroak 22, igandea, goizean zehar:

Aurreko asteetako larunbatetan auzolanean ehundutako indarkeria matxista uxatzaileak zintzilikatu genituen udaletxeko balkoiaren azpian. Bukatutakoan, 13:00etan, talde argazkia egin genuen.



Azaroak 25, asteazkena, 18:00etan:

Urtero egiten bezala, herriko plazan elkartu ginen emakumeek jasaten duten indarkeria matxista salatzeko.



Hitzak iruditan



**Goian gorri,
behean zuri,
egunsentiak
egunonak guri.**


**Artaingo borda, horra,
artzain algaren altxorra.**



**Zer! etzanda ere
errespetua sortzen
dizut, ezta?**

**-Zatoz hona, ttiki.
-Ni haundie naiz, ama.**





**Argiak azaltzen
du bidea,
bideak azalduko
digu argia.**

**-Aurreago ta goxogo,
aurreago ta goxogo.
-Beeertan goxo,
beeertan goxo.**



**Esnatu da pagadia,
altzotarron ametsen
kabia.**

**-Hi, nola ikusten gaitun
hortik, txindoki?
-Poliki, poliki! irudiz ttiki,
hitzez galanki.**



**Irudiak: Mertxe Allue Gines
Letra: Agustin Amiano Gurrutxaga**

Motzean

ERREPRESIOA

GENERO IKUSPEGITIK

hitzaldia (2020/11/27)

Azaroaren 25ean Emakumearenganako Indarkeriaren Kontrako eguna ospatzen dela-eta, Lourdes Herrastik, Aranzadi Zientzia Elkarteko historialari eta antropologoak, "Errepresio genero ikuspegitik" izenburupean, hitzaldia eskaini zuen Batzarremuñon. Emakumea "ahaztutako biktima nagusia" izan dela uste du, eta emakumeek garai hartan jasandako errepresioa eta eskubide urraketak izan zituen mintzagai. Gerra zibilean eta gerraostean, gizateriaren aurkako krimenen eta abusu larrien biktima ugari izan ziren. Emakumeak ez ziren salbuespen izan, beraiek ere kalte horiek jasan zituzten-eta; baina historia (emakumeen historiarekin, oro har, gertatzen den bezala) ezkutatu eta isilarazi izan dute.

Gerraostean emakume-eredu bakarra ezarri zuten eta bere alderdi publikoena garatu nahi zuten emakumeak difamatu egin zituzten. Horixe bera gertatu zitzaizen, esate baterako, Clara Campoamorri edo Victoria Kenti. Bando frankistak izandako garaipenaren ondorioz sortu zen gizarte berriak emakumezkoentzako rol apalgarria zuen gordeta. Ordura arte emakumeek berdintasunerako bidean irabazitakoa galdu zuten. Hezkuntza, mendeko emakumeak lortzeko tresna bilakatu zen, alegia, etxean egon eta eliza katolikoaren arauen arabera, erduzkoak zirenak lortzeko tresna, gizonen eta gizartearen "beharretara" makurtutako emakumeak.

Guzti honetaz eta, orokorrean, ideologia bateko edo besteko izateagatik zapalduak izateaz gain, emakume izate hutsagatik jasan zituzten eskubide urraketez, irainez, bortxaketez ... hitz egin zigun Lourdesek.

Hizlari aparta da Lourdes, eta bertan bildu ginenok, interes handiarekin jarraitu genituen bere azalpenak. Aberatsa izan zen ondoren gure gogoetak eta ekarpenak eginez sortutako solasaldia.



ETXEBIZITZA

TASATUAK EGITEN HASI

DIRA (2020/12/17)

Belaio eta Luberri etheen segidan sei etxebizitza izango dituen eraikina eraikitzen hasi ziren. Udalak, etxebizitzeari buruzko informazioa eta izen-ematea zabalduz.

COVID 19, ZANPATUKO DUGU, EZ ETSI

“Badaezpada ere ohe bat prestatu genuen Donostia Ospitalean”. Esaldi hau grabatuta geratu zitzaidan “Olentzerotan jakinminez” jardunaldiko mahainguruan. Lekutan! Makina bat sufritu dugu urte luuuuze honetan. Inguruak hobeto ezagutzeko balio izan badigu ere, Altzoko bideak eta bazterrak zapaltzeko eta bertako aire garbiak arnasteko erabili baditugu ere, asko utzi behar izan dugu atzean. Gure arteko harremanak hoztu egin dira, bakandu edo pantaila baten menpe geratu; poltsikuak zurlatu ditu zenbaitetan; paraje berriak ezagutzeko asmoak atzeratu... Baina ondorio latzenak osasunak jasan ditu, gaixotze arriskuak izua ekarri baitigu, eta heriotzaren konpainia garratzak mehatxatu.

Baina sektore batzutan eragina handiagoa izan da, harreman zuzenagoa izan baitute haur, gazte, heldu nahiz adinekoekin. Eta, egiten duten lana dela eta, eskerrak zein animoak emateaz gain, hauetako batzuren iritzia jakin nahi izan dugu. Berriro diot, BATZUREN iritzia, guztiona hemen txertatzea ezinezkoa baita. Lau galdera luzatu dizkiegu denei:

1. Koronabirusaren gaitzak asaldatu ginduenetik, nola bizitu izan duzue zuen lantokian, zure inguruan?
2. Nola aldatu da zuen bizitza bitarte honetan?
3. Gizartearen babesik iritsi al zaizue? Nolako mezuak jaso dituzue?
4. Beldurra, nekea, bakardadea, urtebete galdu izana, gaisotasuna..., denetik antzeman da bitarte honetan. Nolako mezua zabalduko zeniguke zuk, edo zabalduko zenigukete zuek?

“Beldur handia somatzen zen, estres eta lan karga izugarria”

OIHANA CAMINOS

familia medikua da Zegamako Osasun Etxean; honela erantzun die lau galdera hauei:

1. Lantokian?

Hasierako hilabeteetan beldur handia somatzen zen, ezjakintasun asko, estres eta lan karga izugarria. Protokolo aldaketa izugarria izan da. Ni amatasun baimenarekin nengo eta hilabete batzuk beranduago hasi nintzen lanean. Lanera bueltan, aldaketa izugarria izan zen. Arreta gehiena telefonoz egiten da, aurrez aurrekoa minimoa izanik (orain arte zenaren guztiz kontrakoa).

2. Bizitzan?

Lanean, lan karga handiarekin. Lanetik kanpo, planak egiteko muga askorekin. Familiarekin egoteko ezintasuna (hilabete baina gehiagoz beraiek ikusi gabe egon behar izan dut), senide bazkari jendetsuak egiteari utzi behar izan dugu, baita lagun elkarketei ere...

“Bezeroekin harremanak asko hoztu dira”

Lurdes Muruak

Alegiako botikan egiten du lan, eta egoera zail honi nola aurre egin dioten kontatu digu:

1. Lantokian?

Hasiera batean urruti ikusten zen gaitza, baina piskanaka hona ere hurbiltzen hasi zen. Sekula ere ez nuen pentsatuko horrelako zerbait bizitzea tokatuko zitzaigunik, pertsonalki iruditzen zitzaidan amets gaizto bat zela. Lantokiko giroan estres handia nabaritzen zen: jendeak beldurra zuen, beharrezko materiala agortzen hasi zen (maskarak, alkohola, ur oxigenatua, gel hidroalkoholikoak, guanteak, etab), eta hornidura faltaren aurrean prezioak gogotik gorantza egiten ere bai. Telefonoa etengabe joka zebilen, bai pazienteen deiak zirela eta, baita hornitzaileenak zirela ere. Kanpoan jende ilarak sortzen ziren... Oso egoera nekagarria bilakatu zen, eta jakina, guk ere babes neurriak betetzeko denbora behar genuen, garbiketa egiteko, etab.

2. Bizitzan?

Nire irudipena da batez ere bizitza arlo sozialean aldatu dela, lagunekin denbora gutxiago pasatzen, beste zenbait gutxiago ikusiz, familian ere jende gutxiago bilduz... Aisialdia ere asko aldatu zaigu, askoz mugatuagoa da. Esaterako, herritik ezin izan dugu nahi adina mugitu eta horrek gure denbora libreka beste era batera moldatzera eraman gaitu. Lan arloan berriz, azpimarratuko nuke bezeroekin harremanak asko hoztu direla. Izan ere, alde batetik, segurtasun-neurriak betetzeko pantailak ezarri dira, eta barrera



3. Babesik?

Eskertza hitz ugari bidali dizkigute, baita animo eta hitz politak ere. Guzti horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen digu. Badira bestelakoak ere: batzuk ez dute ulertzen zer egiten dugun, zergatik dugun itxarote zerrenda ... kontsultak hutsik ikusten dituzte (arreta gehiena telefonoz baita). Eta denbora gehiena telefonoari itsatsita igarotzen dugunez, lanik egiten ez dugunaren sentsazioa dute. Nabari da baita konbertsazioetan jendea nekatuta eta erreta dagoela.



moduko bat sortzen da elkarren artean. Bestetik, leku itxietan jendeak denbora gutxiago egin nahi du, kutsatzeko probabilitatea handiagoa dela eta.

3. Babesik?

Zenbait bezero zein lagunek babesa eta animoa transmititzen ziguten, nahiko zaurgarriak ginenaren irudipena baitzuten. Hala ere, orokorrean, ez dut babestuak izan garenaren irudipenik izan, eta horren beharrik ere ez dut sentitu. Egia esan, nahiko lasai sentitzen nintzen hartzen genituen neurriekin.

4. Mezua?

Nahiko nekatuta iritsi ginen udara, eta animikoki baxu



4. Mezua?

Arduraz jokatzeko eskatuko nuke. Pandemiari aurre egi-
tea denon eskuetan baitago. Norbera eta gure ingurua
zenbat eta gehiago zaindu, guzti hau azkarrago pasako da,
eta hemendik urte gutxira, istorio modura kontatzeko eran
izatea espero dut. Animo guztioi, gero eta gutxiago falta da
eta.



“Naturan ikasteko atea zabaldu
dugu eta honekin oso gustura
gaude”

**Imaz Bertsolaria Eskolako
Iritzia ere eskatu dugu, eta honelako erantzunak jaso
ditugu:**

1. Lantokian?

Hasieran estres puntu handiarekin, egun batetik beste-
ra birsortzea exijitu zitzaigun gaiaren inguruko gogoetarik
egin gabe eta informaziorik gabe. Piskanaka moldatzen
joan ginen, astoa makilera bezela, etengabeko ziurgabeta-
sun batean. Udan eten bat izan genuen, arnasa hartu eta
irailean zalantza handiekin hasi ginen.

2. Bizitzan?

Hezkuntza eta Osasun Sailetatik iristen diren jarraibi-
deei jarraituz, aldaketa eta moldaketa ugari egin ditugu
eskolan, baina gure “esentzia eta nortasuna” galdu gabe.
Ikasleen nahasketak mugatu zaizkigu eta musukoa ozto-
po da une askotan. Bestalde, kanpoan ordu gehiago pasa-
tzeko eta naturan ikasteko atea zabaldu dugu eta honekin
oso gustura gaude. Luzerako etorri den aldaketa bezala
ikusten dugu.

3. Babesik?

Orokorrean mezu positiboak izan dira, “animoa” transmi-
titzen dutenak. Eskola irekita mantentzea garrantzitsua da
gizarte honetan, itxialdia oso gogorra izan delako denent-
zat, eta batez ere umeentzat. Hezkuntzan gauzak nahiko
ondo egiten ari direla iruditzen zaigu, eta horretan jarrai-
tuko dugu.

4. Mezua?

Egoera honi bukaera urrun ikusten zaion arren, bizitzako
beste aspektu batzutan fijatzen erakutsi digu. Birusarekin
“bizitzen eta harremantzen” ikasten ari gara eta gertuen
dugun txikitasunean handitasunak baloratzen ikasi du
gehiengoak. Egoera gogorrenetatik ere zerbait positiboa
atera daitekeela helarazi nahiko genuke.



samar. Orduan izan genuen deskantsu apur bat hartzeko
denbora, baina egia da gizarte bera oso desmotibatua,
nekatua, ilusio faltarekin ikusten dela oraindik ere. Gainera,
farmazia bulegoetan pazienteek euren gaixotasunez asko
hitz egiten dute, euren zalantza zein beldurrez... eta ondo
kudeatzen ez bada, desgaste handia sortzen du. Orain txer-
toa gure artean dugu, esperantza dut gizartearen zati handi
baten inmunitatea lortuko dela eta apur bat baretuko dela
egoera. Galdutako urte bat baino, beste gauza batzuk ba-
loratzeko urtea izan da, gertuko lagunekin gehiago egote-
ko, eguneroko gauza txikiez gozatzeko, inguruko bazterrak
hobeto ezagutzeko... Eta gure kasuan Altzoz disfrutatze-
ko, aukera asko ematen dituelako, bai natura aldetik, zein arlo
kulturalen.



“Oso gogorra izan zen guztiontzat agurrik gabeko heriotzak ikustea”

Sole Iglesias

herritarrek Tolosako lurramendi egoitzan egiten du lan. Konturatzeko gaitza sartu zen bertan eta gorriak ikusi dituzte. Hunkigarria da nola kontatzen duen irakurtzea:

1. Lantokian?

Etenik gabea eta oso gogorra. Lankideen gaixotzeak eta egoiliarren gaixotze zein heriotzak etorri ziren. Nik jostun lana egiten dut, baina egoerak hala behartuta, sukaldetan eta garbiketan laguntzea egokitu zitzaidan. Egoera latza izan zen. Lana eta nekea. Osasuntsu geundenok lan bikoitza egiten genuen, gurea eta gaixotu zirenekoa. Egoiliarrek izuak jo zituen, kontrol zorrotza eta normaltasuna iritsi ziren arte. Bitartean, oso gogorra izan zen guztiontzat agurrik gabeko heriotzak ikustea, hain merezia zuten hileta egokirik gabe; azken momentu haietan lagunik gabe edo familiako inor gabe.

2. Bizitzan?

Egoitzan lana egitean, beste batzuk ikusten ez dutena ikusten duzu. Nire bizitza pertsonalean pentsa arazi egin dit, ez gara konturatzen ditugun baloreetatik, begiak irekitzen zaizkigun arte. Nire bizitzako geldione bat bezala hartu nuen, momentu asko aztertu eta gauza tiki asko baloratzeko. Hain materialistak ez izan eta aberastasuna barruan daukagula konturatzeko; bilatzen asmatu behar, horixe. Gaitz asko gure ezkortasunak eragiten dizkigu. Argia dugun izakiak gara, dizdira egin behar dugu, ilunpera eramaten gaituzten horiek gidatzen utzi gabe.

3. Babesik?

Ez dugu merezi genuen babesik izan. Guztiok ezberdin pentsatzen dugu, eta elkarrekin aurrera egin ordez, norbera bere bidetik joaten da. Gero izua etorri da, guzti hori ekidin zitekeenean. Ez dugu gure planeta behar bezala zaindu, eta ondorioz astindu hauek datoz. Ikasgai bat da, aldaketak elkarrekin hobeto egiten direla ikus dezagun.

4. Mezua?

Gauzak ez direla uste dugun bezala. Goizero esnatzeari balioa eman behar genioke, merezi duen balioa. Bizirik gaudela ikustea, eta daukagunari eskerrak ematea, ez nahi dugunari; umilagoak izan eta ez hain berekoiak, maitasunez elkar lagundu. Honek aldatuko gaitu benetan.



“Herritarren babesa eta animoa jaso ditugu”

“Zatoz Altzora”

dio Altzoko Ostatuko langileen jantziak, edo kanpotik irakur daitekeen gonbidapen erakargarriak. Eta saiatu dira zetorrenari aterpe edo gune segurua eskaintzen; nola saiatu ere:

1. Lantokian?

Ba batez ere kezka eta beldurrez bizi izan dugu gure ostatuan. Arau zorrotzak ezarri dizkigute, aforoa jeitsi beharra izan dugu, mahaien arteko distantzia luzatu. Ireki genuenetik bi aldiz itxi behar izan dugu ostalua eta ezin dugu afaririk eman.

2. Bizitzan?

Batez ere hiru ondorio nagusi ikusi ditugu gure bizitzetan: gure inguruko edozeinengan ekarri digun isolamendua, gure ohituretatik hain urrun dagoen mugikortasun eza eta gaitzak berak norberarengan sortzen duen errespetua edo beldurra.

3. Babesik?

Honelako egoeratan hainbeste estimatzen diren herritarren babesa eta animoa jaso ditugu. Eta honekin batera, ezin dugu ahaztu udala ere egoeraz jabetu dela eta lagundu digula.

4. Mezua?

Ez zaigu besterik geratzen eta aurrera egin behar dugu positiboki, baikortasuna lehenetsiz. Ez dugu etsi behar, garai hobeak etorriko direla pentsatu eta arazoei aurre eginez abiatutako bideari eutsi behar diogu.



“Ohi baino gehiago etxean sukaldatzen hasi zen jendea”

Eider Balerdik

Tolosako Miren Harategian ematen ditu orduak izebari lagunduz. Orokorrean dendak lokal txikiak dira, eta gainera bezero joan-etorri handia gehitzen badiogu, arriskua bete-betean ageri dela ezin ukatu:

1. Lantokian?

Oraindik gogoan ditut hasierako egun haiek. Ziurgabetasun handia nabari zen kalean. Gure lanari dagokionean, derrigorrez eskuekin ukitu beharreko lana izanik, eskularruak janzten hasi ginen, pantailak, musukoak... Birusaren hedapena zela eta, txartelaren erabilpena areagotu egin zen. Jendeak ez zuen beste gairik ahotan, beldurra zen nagusi bezeroen artean, denda itxiko ote genuen, elikagai nahikoa izango ote zen hurrengo egunetan...

2. Bizitzan?

Hasierako hilabeteetan denok etxean egon ginenez konfinamendu orokorra zela eta, salmentek gorakada nabarmena izan zuten. Jendea ohi baino gehiago etxean sukaldatzen hasi zen, denbora ere gehiago zuelako, haurrak etxean zeudelako, ... eta honek guztiak elikagaien salmenta areagotzea ekarri zuen. Denboraren eraginez eta pandemia aurrera joan ahala, jendearen nekea nabaritzen hasi ginen. Ondorioz, hasieran ez bezala, prestatutako jakiak erosteari gero eta gehiago ekin zion jendeak. Horretara ere egokitzen hasi ginen, eta une hartan genuen azpiegiturak ez zuenez ahalbidetzen bezeroari behar bezalako arreta eskaintzea, aspalditik buruan zuen proiektuari ekitea erabaki zuen nire izebak, eta noski, gure babesaren eskaini genion.

3. Babesik?

Egoera zail baten aurrean, kezka zen nagusi. Jendeak proiektuaren berri jakin zuenean, mezu positiboak jaso genituen. Aldaketa handia izango zela bagenekien, bai bezeroen aldetik eta baita gure lan egiteko moduan ere. Denbora aurrera joan ahala, proiektuaren irekierari data bat jarri zitzaion. Pandemiak izan zuen bilakaeraren ondorioz, urte amaierako data hori atzeratzea posible ikusi bagenuen ere, bezeroen aldetik mezu itxaropentsuak jaso eta gero, Gabonak ate joka genituela irekiera eman zitzaion.

4. Mezua?

Pandemiak ere zenbait egoerari azkartasun handiagoz erantzuten erakutsi digu. 2020. urtea ahaztezina izan da amaiera positibo batekin. Lan taldea handitu, sukalde berri batean lanean hasi, jaki prestatu eta berri batzuk gure bezeroei eskaini... Urtebete galdu ez izanaren sententzia daukagu. Egoerak aldaketarik ematen ez duen arren, gu bezeroari ahalik eta arreta berezi eta pertsonalizatuena eskaintzen saiatuko gara.



“Beldurrak eta errespetoak hartu gaitu eta elkarrengandik urrundu”

Antonio Artola

Bilman Bus enpresako autobus txoferra da. Goiherri eta Urola bailaretan gidatzen du bere makina erraldoia eguneroko, eta berak ere nozitu ditu egoera honen ondorioak:

1. Lantokian?

Hasieratik aldaketak izan genituen eta behar bezala hornitu gintuzten: maskarilla, gela, guanteak. Manpara batez babestu gintuzten eta inguruko bi aukietan ezin zen inor eseri. Dirurik ez genuen onartzen eta norberak bere txartela erabili behar zuen. Bidaiariak zintzo jokatu dute, eta norbait deskuidatzen bazen, erizainen laguntza geneukan, maskarilla ondo jartzeko esanaz. Lankideak nekatuta eta nazkatuta ikusi ditut. Bat-batean aldaketak zetozen, maskarilla edo diru erabilera zela eta... Pentsa, hiru ispilu txikitu ditut nire autobusarekin horrenbeste maskarilla eta betaurreko lurrinduen artean.

2. Bizitzan?

Erabat aldatu da gure bizitza. Atzera egiten dit giroak, ez nau motibatzen. Harreman giroa pobretu egin da, lehen jende multzo zabalagoak osatzen genituen. Beldurrak eta errespetoak hartu gaitu eta elkarrengandik urrundu egin gara. Pilota partidu bat tabernan ikusteko ere gogorik ez du ematen.

3. Babesik?

Baaaa! Jendeak txaloka hartzen ginduen Beasainen edo Ordizian. Hunkigarria zen benetan, bidaiariak oso arduratsu ikusi ditugu, kasu eginez; askotan jaso ditugu beraien eskerrak. “Zu bai txintxo gaur ere, puntual asko etorri zea”, dio amona maitagarri batek.

4. Mezua?

Jendeak orokorrean zintzo jokatu duela, esperientzi pertsonal bezala hartu beharko dugula, hala egokitu zaigunez. Nire inguruan ikusi dut mezua gureganatu egin dugula eta zer gertatzen den konturatu garela ehuneko ehunetan. Txertoak sortu digu momentu batean kontraesana, aldi berean nahi baina ondorioen kezka, beldurra.

Bertso eskola

Doinua: Iparragirre abila dela.

1.

Ohartzerako, ustekabeen
denborak egin du deia
zoriontasuna ta maitasuna
aurten dirade barreia
Hamabi mahats jatean
berriaren atean
zenbat asmo ta ideia
ez da ez izan nolannahikoa
bi mila eta hogeia

2.

Otsail erdian tolosaldean
zen iñauteria lehertu
Betiko mozorroez gainera
berriak ziren agertu
koro ta maskarilla
bata ta jeringilla
eta partikulak gertu
mozorro harek zer grazi zuen
oraindik ez dut ulertu

3.

Aste santuan Europa pasa
genuen alderik alde
Bertso-eskola bihurtu genun
Orduan bidaia-talde
furgoneta batean
bixitatuz katean
Berlin eta Kopenhage
ederki asko ibili ginen
batere jenderik gabe

4.

Lesakarako plana egin zen
bidaia hartatik bueltan
parrandak beti izan behar baitu
beharrezko oporretan
Quechuaren kanpina
ez zen lehen adina
ta jenderik ez kaletan
hamar urtean lehenengo aldiz
jarri ginen itzaletan

5.

San Inazioekin batera
herria festaz girotzen
paellada, bertso poteoa
ta kontzertuez gozaten
Joxeluk errekorra
ipini zuen horra
guztiak boteaz zuzen
Toka de quedak irauñ artean
entrenatzen aritu zen

6.

Abendua ere ate joka
guregana bazetorren
kantu entseguak egiteko
elkartu ginen pozarren
Zapi eta abarka
kantu ta zalaparta
etxera hurbildu arren
aurten dirua bota digute
ixilik egotearren



FEMINISMOAK EGINGO GAITU HERRI

2020a Euskal Herriko Jardunaldi Feministetako txutea oraindik ere gainean genuela hasi genuen (B)eroatarrok. Urte berriaren atarian “Gaur gauean mahatxistak jango ditugu. Urte feminista on!” soinean zeraman pankarta plazan zintzilikatu genuen, herrian talde feministaren presentzia bermatuz.

Gabonetan indarrak bilduta, urtarrilaren 30ean Euskal Herri mailan lan baldintza, bizitza eta pentsio duinen defentsan deituriko greba deialdiarekin bat egin genuen (B)eroa Talde Feministako kideok. Otsailean sartu bezain pronto, Martxoak 8rako egitarauetan pentsatzen hasi ginen. Nahiz eta aurreko urteko gisan greba orokorrerako deialdirik ez izan, egun honen borroka izaera azpimarratu nahi genuen. Horrela, Mariren Alabak, Udaletxeko Berdintasun Saila eta hiruron artean martxorako ekintza ezberdinak antolatu genituen. Hilabete hasieran gurean izan zen Agurtzane Belaunzaran bidaiari berrobitarra, esku artean zerabilen “Munduminez” saioa aurkezten. Bertan, munduan zehar emakume euskaldun eta azal zuri gisa izaniko esperientziak gurekin partekatu zituen. Urteroko gisan, herriko emakumeen afariak ere bere lekua izan zuen, “photocall” eta guzti. Martxoaren 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean, kontzen-

trazioa izan zen herriko plazan eguerdiko 12etan. Horrez gain, talde gisa zenbait azalpen zein aldarrikapen egiteko aprobetxatu genuen: martxoaren 8aren jatorria, ehungintza industriako explotazioa, sasoikako emakumeen zein barneko zaintzaileen lan baldintzak, transfobia, pentsionisten egoera, kirol zein lan munduko arrakala, etab. Horretarako, herriko plazan zenbait kartel informatibo edota objektu e-sanguratsu ipini genituen denon ikusgai izan zitezten. Beste zenbait ekintza aurreikusita baziren ere, pandemia zela eta albo batera utzi behar izan genituen. Horrekin batera, taldearen jarduna ere bertan behera geratu zen bi hilabete luzez.

Maiatza bukaeran, talde gisa biltzen hasi ginen berriz ere, zaintzaren inguruko zenbait hausnarketa eta eztabaidari bide emanez. Ekain amaieran, LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna aldarrikatuz, “Esnatu Naiz” kabaretaz gozatzeko aukera izan genuen Batzarremuinon; besteak



beste, identitatea, sexu harremanak eta sexualitatea hizpide izan zituen Andoni Mutiloak antzetzutako show honen. Uztailan, berriz, hilabete amaierako bertso saiora begira gai-jartzaile ikastaroa izan genuen Maite Berriozabalen eskutik. Azkenik, udara ondo amaitzeko taldeko asteburu pasa antolatu genuen, barrura begirako zenbait lanketari espazioa eta denbora eskainiz.

Kurtso berriarekin batera Kattalin Minerren eskutik irakurle feminista tailerrak hasi ziren. Horrela, irailetik abendura bitartean hilean behin irakurle talde bat biltzen ginen liburu jakin baten pasarteak ikuspegi feminista batekin aztertzeko. Urrian Iñigo Etxezarreta izan genuen gurean, Altzoko kultura eskaintza birpentsatzeko tailer bat eskaintzen. "Zein kultura eskaintza dugu herrian? Zein programazio? Nork hartzen du parte, zertan eta zergatik?" izan ziren besteak beste Iñigok planteatutako zenbait galdera. Bertan parte hartu genuen herriko eragile desberdinetako kideok eta solasaldi interesgarria sortu zen benetan. Urtea amaitzeko, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren inguruan egitarau oparoa antolatu genuen.

2020a, pandemia urte gisa izendatua, zaintza krisia agerian utzi duen urtea izan dugu zalantzarik gabe. Birusak zahar egoitzak gogotik kolpatu dituen bitartean, bertako langileak uneoro euren bizitzak arriskuan jarri dituzte, kutsatzeak ekiditeko materialaren hornidura ezaren aurrean. Horrez gain, egoiliarrei euren gertuko zaintza ukatu zaie, bisitak erabat mugatuz. Bestalde, etxeko zaintzaileek betiko lan baldintza prekarioetan lanean jarraitu behar izan dute, gaixotasun hau eta jendartean sortutako beldurra aitzakiatzat hartuta euren askatasuna oraindik ere gehiago mugatuz. Gainera, hauetako asko kale gorrian geratu dira, langabezia jasotzeko aukerarik izan gabe. Ezin da ahaztu, bestalde, asko eta asko atzerritarrak direla, eta kontraturik ere ez dutela. Horrez gain, euren etxebizitzetan indarkeria



pairatzen duten pertsonak isolatuta geratu dira, erasotzailearengandik ihes egiteko baliabiderik gabe. Honen aurrean, (B)eroa Talde Feministako kideok inoiz baino ozena go oiuhatu nahi dugu hemendik aurrera ere, indibidualki zein kolektiboki, barnera zein kanpora begira, desikasiz, berreraikiz, osatuz, bazterrak nahastuz, erosotasuna deserosotuz, Altzo eta sistema eraldatzen jarraitu nahi dugula, Maialen Lujanbiok adierazi eta aldarrikatu zuen moduan: "aita hil behar da eta Altzo ere bai"! GORA BORROKA FEMINISTA!


(B)eroa Talde Feminista

OLENTZEROTAN JAKIN-MINEZ

Beste modu batean, baina, gauza aberats ugari egiteko aukera izan zen XXIV. olentzerotan jakin-minez ekitaldian. Hasi mugei buruzko hitzaldiarekin eta Ahire ahizpen kantaldira arte.

MUGAK ERDIAN, ALA ERDIA MUGATZEA?

Olentzerotan jakin minez-en izandako hitzaldietako bat izan zen hau. Xabier Kexeta bertaratu zitzaigun mugak eta mugarriei buruz hitz egitera; sailak, lurak eta urak mugatu beharra... Jende ugari bildu ginen Batzarremuñon arratsaldeko 19:00etan, eta mugei beste filosofia batekin begiratzen ikasi genuen.



KOKEDAMAK EGITEN IKASTEKO TAILERRA



(2020/12/13 eta 20)

Olentzerotan Jakin-minezeko programazioaren barruan, KOKEDAMAK egiten ikasteko tailerra egin zen Joserra Caminosen gidaritzapean. Kokedama, landare apaingarriak egiteko teknika japoniar bat da; landareak buztin eta goroldiozko bola batean hazten dira.

Tailerra arrakastatsua izan zen: 24 lagunek parte hartu zuten, bi igandeetan, 12 laguneko bi taldeetan banatuta eta, partaideek, teknika honen oinarriak ikasi zituzten.

Bigarren egunean, saio horretan egin ziren landare apaingarriak eta berak ekarritako beste zenbait elementu erabilia, Batzarremuñoko aretoa konposizio ikusgarriekin apaindu zuen Joserrak, bertan zirentzako inspirazio-iturri bilakatu.

Partaide bakoitzak hiru kokedama egin eta eraman zituen etxera, etxeko txokoak apaintzeko asmoz batzuk, senide edo lagunei oparitzeko asmoz beste batzuk. Pozik atera ziren guztiak ere!



COVID 19, HONEN ONDOREN ZER?

Galdera sakontzeko mahaingurua antolatu zen abenduaren 17an. Agustin Amiano gidatu zuen eztabaida eta honokook osatu zuten mahaia: Elixabet Gantzarain Oiarbide, familia medikuak; Maialen Gantzarain Oiarbide, zainketa intentsiboetako medikuak; Kontxi Alicostes Murua, psikologoak; eta Fermin Murua Berakoetxea, baserritarrak.

Herritar asko bertaratu zen, onartutako aforoa osatzeko lain, eta gorputz-osasunean ez ezik, buru-osasunean gaitz hau eragiten ari den kalteen ondorioez gogoeta egitea eta ikuspegi desberdinak partekatzea zen helburua. Herrian banatu zen egitarauan bertan aurreratu ziren azpi-galdera nagusiak: nola zaindu behar dugu hemendik aurrera? Nolako harremanak bideratu behar ditugu? Nolako nekazaritza, eskertuko al diogu naturari egun hauetan emandako babesa?

Elixabet eta Maialen Gantzarainek, covid19aren bigarren olatuan sarturik bete-betean, anbulatorio eta ospitaleetan bizitzen ari zirenen berri eman ziguten, egoeraren larria bere gordinean azalduz eta, xehetasunak xehetasun, gaitzaren zabalkundea zailtzeko harremanak mugatzeko eskatuz. Gertutik bizitzen ari dira gaitzaren eraginak, ezintasuna eta inpotentzia sarritan galentzen ari zaien sentimendua da, eta neke handia sortzen du horrek beren alorrean lanean ari diren guzti-guztietan. Argi dute gizarte osoaren eskuetan dagoela irtenbidea. Gaitzak ez duela sendabiderik eta iristear dagoen bakuna eta prebentzio neurriek izango direla soluzioa, Esfortzu hori eskatu zuten.

Kontxi Alicostes, gaitzari aurre egiteko hartu diren neurri gogorrek, jendearen arteko harremanetan, hurbilekoen zaintzan, herioaren kudeaketan, ... izandako eragiñez eta jendearen emozio eta buru-osasunean sortzen ari den kalteez aritu zen. Osasun fisikoa bermatzeko ahaleginean, osasun mentalaz ahaztu garena eta desoreka hori ez bada garaiz konpontzen, neurtzen zaila den ondorio kaltegarriak ekarriko dituela. Ikuspegi desberdin hauek partekatze guneak, mahainguru hau bezalakoak, eta, baldintzatuak izanik ere, jendearen arteko harremanak errazteko guneak sortzearen garrantzia aldarrikatu zuen, Altzoko kultur aktibitatea adibide hartuz.

Ferminnek, mundu globalean pertsonen eta produktuen trafiko azkarren testuinguruan kokatu zuen gaitz honen mundu mailako zabalkunde azkarra. Horretan, eta pertsonok naturaren defentsak gutxitzeko egiten ari garen esku-hartzean. Argi azaldu zuen bertako ekoizpena, honetarako ikuspegi ekologikoa, horri prestigio ona ematea, eta, ondorioz, bertako produktuen kontsumoa direla bidea. Argi esan zuen ere ez zuela gizartea horretarako prestatua ikusten eta pedagogia lan handia dagoela egiteko. Ikuspegi truke aberasgarria izan zen, eta osagarria. Zaila da luze esandakoak motzean jartzea. ekartzea.



“ARRASTOAN” DOKUMENTALA

ARRASTOAN, LAPONIAN. Tolosaldeko espedizio batek Laponia gurutzatu zuen alderik alde 1974 urtean, eta aitzindariak izan ziren horretan. Hainbat urte geroago, 2017ko neguan antzeko bidai bat egitea erabaki zuten Josu Iztuetak, Iker Iriartek, Pablo Dendaluzek eta Aitor Osak. Laponian zehar egindako bidai horren berri ematea etorri ziren Josu Iztueta tolosarra eta Iker Iriarte alegiarra, eskarmentu handiko bidaiariak biak, mundua ezagutzeko gogo bizimodu egin dutenak. Azaldu zuten, beren asmoa, eski zeharkaldiaren aitzakian, kultur zubiak eraikitzea zen; lehendik ezagutzen zuten jendea bisitatu eta harreman berriak egin. Sarrera labur bat egin ondoren, bidaia horren kontakizuna egiten duen 50 minutuko dokumentala ikusi genuen bertaratuginen 30 bat herritarrek, eta gero izan zen galderen eta iritzi trukearen txanda emankorra. Hangoen, Samien, kulturaz jardun ziren, hizkuntzaz, gureen oso desberdinak diren bizi-baldintzez, herrien arteko distantziaz eta oinarritzko zerbitzuez (eskola, osasuna, ...), erroez, bizipozaz, hango eta hemengo desberdintasunez, ... Dutena ezagutzeko eta duguna baloratzeko balio izan zigun, besterik beste, dokumentala ikusteak eta ondorengo ia ordubeteko solasaldiak.



IKER KARRERA, BIDEA IPAR

Bi urte baino gehiago daramatza eliteko lehiaketetatik kanpo, baina Iker Karrera trailaren munduan utzi duen oinatzak sakona izaten jarraitzen du. "Iker.Mendia. Etxea dokumentala" ikusiko dugu eta bere kirol ibilbide oparoan zehar bizitako bizipenak jasotzen dituen "Bidea Ipar" liburua aurkeztuko digu Unai Ugartemendia idazlearekin batera. Hitz horietan bildu zuten antolatzaileek abenduaren 18an egin zen ekitaldiaren mamia.

Iker Karrera Aranburu mendi-korrikalari amezketarra, iraupen luze-luzeko ibilbideetan mundu osoko marka onentsuenen jabea, eta Unai Ugartemendia kazetari andoaindarra izan genituen herrian. Lehena zen aurkeztera zetozen guztiaren protagonista, bigarrena hitzak paperera ekartzeko lana hartu duena eta guztiari liburua forma eman dioena.

Derrigorrezko aurkezpenak egin ondoren, Unai Ugartemendiak liburua idazteko asmoa nola indartu zen azaldu zuen eta baita zergatik erabaki zuten Desnivel editorial madrildarrean argitaratzea ere. Beraiek izan ziren lehen unetik gogo handiz hartu zutenak egitasmoa eta, gainera, lehen edizioa euskaraz argitaratzea onartu zuten. Gero etorriko da gaztelerazkoa. 50 minutu inguruko *Iker. Mendia etxea* dokumentala ikusi ondoren, Iker Karrera eta bertaratu ginenon arteko solasaldiaren txanda etorri zen, eta bere kirol ibilbide ikaragarria egitea zerk bultzatu zuen, zergatik mendian, une gozoak, garratzak, indarrak eta nekeak ...

Ez zuen hitzaldia bukatu nahi izan Ikerrek Altzorekin estu-estu lotzen duena aipatu gabe: altzotarra du ama, Jaunita Jauregi Berriko, eta horrek bera ere pixka bat altzotar sentiarazten duela esan zuen. Horiek izan ziren azken hitzak.

Hitzaldia bukatuta, Bidea ipar liburua erosteko aukera izan zuten hala nahi zutenek, eta bi egileek beren eskaintzak idazteko pazientzia hartu zuten.



IPUINAK ETA JOLASAK TXIKIENENTZAT

Larunbatean, abenduaren 19an, guraso elkarteak antolatuta, hainbat ekimen antolatu ziren txikienentzat. Txiki-txikienei ipuinak kontatu zizkien Elena Aranbarrik, eta besteek hainbat ekintza desberdin egin zituzten May Gorostiagak lagunduta: ipuinak sortu, "txotxoburu" deitutako txotxongiloak egin eta beste hainbat jolas. Xaboi ponpa handi-mandiak, erraldoiak, egiten gozatu galanta hartu zuten gero



AHIRE AHIZPEN KANTALDIA (2020/12/19)

Abenduaren 19an, iluntzean, Urepeleko kantari hauen emanaldia izan genuen. Miren, Amaia eta Paxkalin txikitatik aritu dira kantuan etxean. Xalbador bertsolariaren bilobak dira eta, etxekoengandik, familia giroan ikasitako bertsoak, kantu herrikoiak eta Ez Dok Hamairu taldearen kantuak kantatzen dituzte beraien emanaldietan. Sebastien Desgrans musikariak akordeoiaz lagunduta izan genituen Altzon. Eliza jendez bete zen haiek entzuteko eta, betiko moduan, interpretazioan hitzei lehenetasuna emanaz, beren ahots paregabeak hirutan harmonizatuta, entzule bat baino gehiago hunkitzerainoko kantaldi ezin ederragoa eskaini ziguten.



Zumizketa (bedaiio)

BERTSO BERRIAK BIXENTE OLAZARREK SARASOLA TXISTULARIARI JARRIAK

Ez dira hain berriak, 54 urte igaro baitira hurrezkero. Bizkarateko bordan hasi ohi zen txistua eta danbolina jotzen Juan Antonio Sarasola. Handik Bedaio gunera arte joaten zen herri-jaien eta jai-egun garrantzitsuen bezperan txistua eta danbolina joz, jai-giroa zabalduz. Juan Antonio Sarasola 1887an jaio zen Zumizketa baserrian. Usadio zaharreko txistularia izaki, bere kasa ikasi zuen txistua jotzen. Errazkin, Lezaeta, Arribe, Betelu, Atallo, Uztegi, Azkarate, Amezketeta, Orendain, Abaltzisketa, etab. Bedaion eta Ugarten dantzatzen den ingurutxo ospetsua Nafarroatik sartutako dantza mota dela uste da, eta dirudie-

nez, Sarasolak zerikusi handia izan zuen horretan. Bere txistu-hotsa nahi eta nahiezkoa zen Bedaioko festa eta jai-egunetan: ihauterietako Igande, Astelehen eta Asteartetan (ingurutxo eta talai edo makil-dantza); "Kandeleroko" egunean Azkarate herrian; herriko festetan eta harri-festetan ere bai. Omenaldi hunkigarria eskaini zion Bedaiok 80 urte bete zituen urtean, 1967ko ekainaren 18an. Egungo gogoangarri hori jaso zuen Bixente Olazar zenak, zortziko handian, 55 bertsoz osatutako sorta luzean. 1983ko urtarrilean itzali zen Sarasolaren txistu-hotsa, 95 urterekin. Segidan doakizu 55 horietatik egindako hautaketa. Izan dadila zure gozagarri!

Bertso-jartzailea: BIXENTE OLAZAR PAGADI (1912-1999)

Neurria: zortziko handia

1-Milla pasa ta bederatzireun irurogei ta zazpian garagarillak emezortzia zuan eguntxo batian Bedaio aldera joan giñaden bide guziak betian; nolako jaia pasa genduan esaten asi gaitian.

2-Juan Antonio Sarasola da apelliduz ta izenez; bere bizitza jarri nai nuke nola izan dan esanez. Batengandikan besteak degu diferentzia gerenez gizon bakoitzak bear du berea tokatzen dana emanez.

3-Juan Antonio beti izan da soñu jotzalle iaioa; milla zortzireun laurogei ta zazpigarrenen jaioa; martxo illaren hogeita amarrez artu zuan bataioa: bi txanponekin ez da pagatzen gizon orren balioa.



4-Meza ondoren ekiten dio agureak txixtu jotzen bere aurrean neskatx ta mutill ingurutxoa dantzatzen jendea pranko aurreratu zan ezin zeiken egon atzen pasadizuak ez dira errezak liburu batean jartzen.

5-Neskatxatxoak txiki politak oso dotore jantziak; danbor ta txixtu soñuarekin dantzatzen ziran guziak. Malla aundiagoko neska ta mutill Bedayon jaio ta aziak merezi du ta zuen maixuari emaizkazute graziak.

6-Bi bertsolari Lazkao-Txiki ta Mitxelenaren eztarik obetoago adierazteko altabozarekin jarrik; eman zituzten Juan Antonio ta Bedayo aldeko berrik, berezkotasun ori duanak nai ta ere ezin bota txarrik.

9-Sabela zerbait berdindutzean umorea da nagusi, batzuek duten abildadea diruz ez leike erosi; Lazkao-Txiki ta Mitxelenakin edozeiñ moduz ez asi! Berez ez bada ez du balio naiz eskola aundia ikasi.

7-Au da Labayen jaunari entzun gure euskera xamurrean komeni diran itz bakar batzuk bedayotarren aurrean; maiztarrak danak jarri bear dira beren mendeko lurrean lana gustora egin dezaten lengo paraje zarrean.

10-Bertso ta kanta, txixtu ta soñu, arratsaldeko irrintziak... gazteak dantzan, saltoka eta zarrak geren iritziak. Orain balio ez dugulako lan orri gaude utziak; garai batean bezela ez gaude orain talentuz jantziak.

8-Eliz ondoko plaza txikian jarrita zeuzkaten maiak, jendea laixter inguratu zan bertantxe bazkaldu naiak; irurogei ta amar euskaldun zar eta gazte anaiak... apetitua irikitzen du mendiko lore usaiak.

11-Laurogei urte paseak dauzka agure bulartsu onek, berrogei eta gehiago ontan ezagutzen det neronek; Jaunari eskerrak, lagundu dio oraindano osasunek ezti goxotan bizi dira oraiñ bere emazte ta semek.



12-Txiki txikitan txixtu jotzeko bazeukan apizioa, gazte jendea dibertitzeko bearrezko ofizioa; erri askotan bete izan du bere obligazioa... eskolik ez dun euskaldun batek egindako azioa!

13-Berrogei eta hamabost urte asi zala txixtu jotzen, Naparroako Errazkiñen da Lezaeta ta Azpirozen; Betelu eta Arriben noiz nai Atallo etzaio aztutzen; Uztegira joan da bazekien egun batzuek pasatzen.

14-Bost pezetako sariarekin pasatzen zuan eguna, len esan dedan hamabost erri oitan gizon ezaguna; allegatzen zan leku danetan edozeñekin laguna... beti izan da bere denboran leiala eta iztuna.

15-Berrogei ta amar urte dauzka berak jotzen dun danborrak, amar pezeta balioa ta gallenduko ziran zorrak; emazteak zer esango ote zion etorri omen zan bildurrak! Denbora askoan iraun oi du berez material gogorrak.

16-Hamazazpi bat urtetan jo du Bedayon erri festetan, iñoiz kanpora joateko oska igande eta astetan; ezkontza edo boda zala ta utsegiñ nai ez bestetan; denbora pasa, alperkerian ez da egona gaztetan.

17-Azkena erosi zuan txixtuak ogei ta amabi urte, merkeagokin ibilli oi zan ori inguratu arte; hogei ta sei duro pagatu ta iraun erazi dio fuerte, errez jotzen dun ixtrumentua petxuantzat ez da kalte.

18-Zure bizitza alaia izan da pobria izanagatik; txixtua jotzen edo bertsotan umore onean betik. Merez dunik etzaio ematen onelako gizon bati; euskal erriko oitura zarrai eutsi diezu zuti.


19-Lan ortarako etzendum zuk lenago iñoren bearrik, dotore asko kantatzen zendun patxara ederren jarririk; ez det askotan entzun izandu alako bertso ederrik... apenas dagon oraindiokan zaarra austeko berririk.

20-Asera duan gauza geienak errematea badakar; bertso berriak berroitamabost ez dira kantatzen azkar; gure Jainkuak bere ondoan nai dezala ikustea alkar, Juan Antonio Sarasola ta Altzoko Bixente Olazar.

Antton Iztueta Maiza



Bixente Olazar




Jaiotzak eta heriotzak



Izen-abizenak:
Aratz Olano Ezeiza
Gurasoak:
Iñaki eta Estibalitz
Jaiotze-data:
2020/03/14
Etxea:
Luberri



Izen-abizenak:
Julen Otamendi Dür
Gurasoak:
Iker eta Bettina
Jaiotze-data:
2020/04/05
Etxea:
Margaretenea



Izen-abizenak
**Juan Miguel
Etxeberria Luluaga**
Heriotza-data
2020/10/14
Etxea
**Intxausti aldea 47;
Oiarbide (I)**
Adina
59



Izen-abizenak
**Joxe Mª Agirre Gazta-
ñaga**
Heriotza-data
2020/12/04
Etxea
**Altzo Muño 81; Toki
Alai etxea, 1**
Adina
92



Izen-abizenak
**Juanita Luloaga
Arruabarrena**
Heriotza-data
2020/08/24
Etxea
**Altzo Muño 81; Toki
Alai etxea, 1**
Adina
85



Izen-abizenak
**Mª Carmen
Elola Balerdi**
Heriotza-data
2020/12/01
Etxea
**Altzo Azpi 10;
Errota Berri etxea**
Adina
65



Izen-abizenak
**Migel Murua
Mendizabal**
Heriotza-data
2020/11/16
Etxea
**Altzo Muño 59
Otsegi Berri etxea**
Adina
92



2020a, ASPALDIKO LEHORRENA

Urtarril hotza, neguaren bihotza

Halaxe dio dio aspaldiko esaera zaharrak. Eta halatsu gertatu zen iragan urtean, urtarrilean izan zelako egunik hotzena. Ugariak dira eguraldiaren bueltan jaso izan ditugun esaera eta atsotitzak. Ez da izango gai askorik eguraldia bezain maiz aipatzen dugunik. Ohartuta edo oharkabean, eguraldiak asko baldintzatzen du gure bizimodua. Eguna joan, eguna etorri eguraldiari begira hartzen ditugu erabaki ugari. Eguraldiaren baitan mugitzen gara eguneroko bizitzaren dantzari.

Gure aurreko belaunaldietatik jaso dugu eguraldiari erreparatzeko joera. Behar bada, garai batean, neurketa lana nekezagoa izango zen. Egun ordea, tresneria eta teknologia lagun, nahiko erraz lor ditzakegu meteorologia neurtzeko erabiltzen diren parametroak.

Aurreko urtetan bezalaxe, iragandako eguraldiaren datuak jasotzen eta aztertzen saiatuko gara aurten ere. Asmo horixe hartuta, hurrengo kontuak eta zenbakiak osatu ditugu.

Urtea joan urtea etorri, eguraldiaren ezaugarri nagusiak

bi ardatzen bueltan mugitzen dira. Lehenengo ardatza euria izaten da eta haren arabera urteak lehorrak ala bustiak izan direla ondorioztatzen dugu. Bigarren ardatza hotz-beroarena izan ohi dugu. Muturreko hotz-beroak markatuta geratzen dira egutegian eta gure oroimenean.

Aipaturiko bi ardatzen garapen zuzena eman ahal izateko oso lagungarriak izango zaizkigu neurketa zehatzak, eguna joan eguna etorri, inguruko estazioetan egiten direnak.

Euskalmet meteorologia zerbitzuari esker, eskuragarri ditugu gure inguru hauetako eguraldiari buruzko datu ugari. Egunez egun jasotzen dituzte tenperatura eta euriari buruzko datuak. Egunero ezezik, orduero bildu eta gordezten dituzte datu zehatzak. Eta jaso bakarrik ez, nahi duenarentzat eskuragarri jarri ere bai interneteko atarian, euskalmet.euskadi.eus web orriaren bitartez.

Neurketak jasotzeko tresneria eta estazio sare zabala erabiltzen dituzte. Askok dira gure inguruan kokatuta daudenak baina gertuen duguna Alegiakoa da. Altzon oraingoz meteorologi estazio ofizialik ez dugunez Alegiako meteorologi estazioan jasotako datuei erreparatu behar diegu.

Behar bada zenbait datu zertxobait aldatuko lirateke Al-tzon bertan jasoko balira baina gehienak antzekoak izango direlakoan horra jarraian, Ori ibaiaren ertzean dagoen Alegiako estazioan jasotako datuen zehaztasunak.

Euskalmet zerbitzuak zehatz mehatz jasotzen du egunero eta orduero zenbat euri egin duen metroko eta litrotan, Alegiako estazioan. Horra bada azken urtean (2020) hilabete guztietan eta bakoitzean pilatu diren litroak eta euri gehien egin zuen eguna ere bai.

Laukia hobeto ulertzeko, horra ohar batzuk. Lehen bi zutabetan urtea eta hilabetea jaso ditugu. Hirugarren zutabean, hilabete bakoitzean osotasunean pilatu diren litroak. Laugarrenean, zein izan zen hilabete bakoitzeko egunik bustiena. Eta azkenik, bostgarrenean, hilabeteko egunik bustien horretan zenbat litro jaso ziren metro karratuko. Horra bada, 2020ko euriteen datuak:

URTEA	HILABETEA	LITROAK HILABETE OSOAN	EGUN BUSTIENA	LITROAK EGUN BUSTIENEAN
2020	Urtarrila	43,3	18a	12,9
2020	Otsaila	45,2	26a	21,1
2020	Martxoa	145,3	16a	29,6
2020	Apirila	88,5	24a	19,2
2020	Maiatza	59,9	10a	22,0
2020	Ekaina	73,7	11a	20,4
2020	Uztaila	11,1	10a	3,2
2020	Abuztua	61,9	29a	27,4
2020	Iraila	83,2	26a	33,8
2020	Urria	167,7	3a	28,1
2020	Azaroa	16,8	3a	5,3
2020	Abendua	231,6	8a	33,5
2020	GUZTIRA	1.028,2		

Datuak ikusirik, 2020 urteko hilabeterik euritsuena abendua izan zen (231,6 litro metro karratuko). Abenduan ia egunero bota zuen. Hiru egun soilik izan ziren euririk gabekoak.

Euririk gutxien aldiz, uztailean izan genuen. Azaroan ere oso gutxi egin zuen.

Urteko egunik bustiena berriz, irailaren 26a izan zen, 33,8 litro jaso zirelarik, egun bakarrean.

Urtez urte jaso izan ditugun datuak konparatuz gero, 2020an aurreko urteetan baino euri gutxiago egin zuen, nabarmen gainera. Hamabost urte daramatzagu euri datuak jasoz Altzoko urtekari honetan eta esan dezakegu, epealdiko urterik lehorrena izan dela iazkoa, 1.028,2 litro soilik jaso zirelarik metro karratuko.

Ahaztutakoak berriro geure begietara ekarriz, horra laburbilduta metro karratu bakoitzean urte osoan eroritako euri

Urte osoan	Zenbat litro/metroko
2006	1.187,5
2007	1.277,6
2008	1.454,9
2009	1.299,0
2010	1.071,3
2011	1.144,2

2012	1.228,3
2013	1.836,2
2014	1.458,3
2015	1.370,5
2016	1.181,2
2017	1.284,7
2018	1.380,0
2019	1.243,1
2020	1.028,2

litroak, 2006tik 2020ra bitarteko 15 urtetan:

Beraz, aspaldiko lehorrena izan da 2020a. Azken 15 urtetako bataz bestekoa 1.296,25 izan den bitartean, azken urtean 1.028,2 litro erori dira metro karratuko, bataz beste-koaren oso azpitik nabarmen.

Beste gauza askorekin gertatzen den bezala, neurri eta garaia egokian datorrena nahiko ongi etorria da zalantzarik gabe, baina neurritz kanpo datorrenean arazoak sor ditzake. Gehiagi edo gutxiagi denean, kexa iturri izan ohi da euria ere. Neurri egokia zein den norberaren arabera aldatzen da ordea, bakoitzaren nahi eta beharren arabera.

Azaroa bero, negua gero

Esaera zaharra xuxen bete zaigu 2020an. Azaroaren hasieran 25 gradutik gorako beroak izan genituen. Aldiz, egunik hotzenean ez ginen 5 gradutatik jaitsi. Denok gogoratzen ditugu, gutxi gora behera, iragan neguko egunik hotzenak. Eta nola ez, izerdi patsetan igarotako udako egun beroak ere bai.

Euriarekin aipatu dugun bezalaxe, urteko egun guztietako hotz-beroak txukun neurtu eta jasotzen ditu Alegiako estazioak. Urteko egunik beroenak eta hotzenak zehaztasun handiz jasota dauzka Euskalmetek. Jarraian eskaintzen dugun laukiaren 1. eta 2. zutabetan, urtea eta hilabetea jaso ditugu. 3.an hil horretako egunik beroena zein izan zen. Gero, 4.an, egunik beroenean egin zuen muturreko tenperatura. Azkenik, 5. eta 6. zutabetan hilabeteko egunik



URTEA	HILABETEA	EGUN BEROENA	ZENBAT GRADU °C	EGUN HOTZENA	ZENBAT GRADU °C
2020	Urtarrila	31a	22,1	3a	-0,5
2020	Otsaila	16a	24,0	20a	0,9
2020	Martxoa	15a	23,7	27a	0,2
2020	Apirila	9a	27,4	4a	1,6
2020	Maiatza	28a	33,5	17a	7,7
2020	Ekaina	24a	35,6	9a	6,9
2020	Uztaila	30a	41,6	4a	10,3
2020	Abuztua	20a	40,4	30a	11,5
2020	Iraila	14a	37,3	27a	8,6
2020	Urria	31a	25,3	17a	5,5
2020	Azaroa	1a	25,5	3a	5,3
2020	Abendua	22a	18,8	5a	1,7

hotzera eta zenbat gradu jaso ziren egun horretan.



Ikus dezakegunez, 2020ko egunik beroena uztailaren 30a izan zen (41,6 °C), uda erdian. Egunik hotzera berriz, urtarrilaren 3a (-0,5°C), negua ofizialki hasi berritan.

Azken 15 urteetako bero eta hotz handienak konparatzen baditugu, muturreko hotz-beroak nola aldatuz joan diren ikusiko dugu. Iragan urtean, 2020an, ez genuen mutur-muturreko tenperaturik izan. Berorik handiena, 42º gradutara hurbildu zen uztailaren 30ean. Eta hotzera juxtu juxtuan jaitsi zen 0 azpitik (-0,5 °)

Urtea	Beroena °C	Hotzera °C
2006	38,4 °C	- 3,3 °C
2007	37,4 °C	- 5,6 °C
2008	36,6 °C	- 2,0 °C
2009	43,7 °C	- 4,6 °C
2010	40,7 °C	- 4,2 °C
2011	40,7 °C	- 3,3 °C
2012	42,6 °C	- 5,3 °C
2013	39,7 °C	- 1,5 °C
2014	38,0 °C	- 1,7 °C
2015	40,2 °C	- 3,7 °C
2016	39,3 °C	- 1,8 °C
2017	40,2 °C	- 7,4 °C
2018	37,9 °C	- 4,7 °C
2019	41,9 °C	- 2,2 °C
2020	41,6 °C	- 0,5 °C

Asko izan dira azken urtean baino egun be-roago eta hotzagoak, aurreko 14 urteetan.

Elurra ere egun bakanetan egin zuen iaz, ikuspegi ederrak eskainiz.

Urtea laburtze aldera, bi ondorio nagusi at-rako genituzke 2020ko datuak aztertuz:



Aspaldiko urterik lehorrena izan genuen iazkoa (2020a). Metro karratu bakoitzean jasotako litroak 1.028,2 besterik ez ziren izan. Azken 15 urtetan bataz bestekoa 1.243,1 litro izanik, bataz bestekoaren oso azpitik geratu zitzaigun iazkoa.

Temperaturari dagokionez nahiko urte apala izan zela esan dezakegu. Aparteko hotzaldirik gabe joan zitzaigun 2020ko negua. Udan ere ez genuen muturreko beroaldirik izan. Uztailaren 30ean 42 graduak nahiko gertu izan genituen (41,6°). Azken 12 urtetan, laugarren aldiz gainditu da Altzon 41 graduen marra. Behar bada, klima aldaketaren adierazle argia izan daiteke.

Horra bada, 2020an neurtutako datuek eskaini digutena. Datuak datu, norberak bere uste, sentsazio eta sentipen pro-pioak biziko zituen ordea.

Esaera zaharrekin hasi bezala, beste bi atsotitzekin bukatuko dugu.

Aldi joana ez da itzultzen.

Denbora badoa, eta gu harekin.

Xabier Olano Jauregi

SARIA ELUSETARA

(2020/12/19)

Eguberrietan ohi denez, Altzoko Udalak saski eder bat zozkatu zuen herritarren artean. Zozketa, Ahire Ahizpen kantaldirako entzule ugari bildu zela aprobetxatuz, jende aurrean egin zen emanaldia hasi aurretik. 48a izan zen zenbaki zorteduna, Eluseta baserriari zegokiona hain zuzen ere. Enrike Pagolak jaso zuen saskia udaletxean Arantxa Menendez zinegotziaren eskutik.



600€ SAHARARRENTZAT

(2020/12/21)

Herriko Imaz Bertsolaria eskolan 600€ bildu zituzten zozketarako txartelak salduta. Saharaz eta sahara-
rez, eta bizitzen ari diren egoeraz zerbait ikasi zuten herriko hurrek. Eskolako ikasleek "Tolosaldea Sahararekin" elkarteari emateko diru bilketa egin zuten berriro ere, eta ekitalditxo bat ere egin zuten. Bertan, egoera berrira egokituz, familia bakoitzak saskia osatzeko nahi zuen produktua eraman zuen eskolara. Pandero batetik hasi, eta panpina edota jateko eta edateko produktu ezberdinez osatutako otarra osatuz.





PORRU PASTELA

PROZEDURA

Lapiko batean gurina su ertainean urtzen jartzen dugu. Ondoren, porruak gehituko ditugu, aldez aurretik garbitu eta moztu ondoren.

Porruak potxatuta ditugunean, esnegaina erantsiko diogu, eta 15 minutuz utziko dugu sutan, beti su ertainean. Jarraian, hau dena trituratuko dugu, eta ondoren arrautzak ondo irabiatu erantsi eta nahastu, gatza eta piperra gehituko ditugu, nahi izanez gero.

Beste alde batetik, gure moldea hostorearekin eratuko dugu, sardexka batekin zulatuko dugu, ez dezan suflatu, eta pisua jarriko diogu (garbantzuak, adibidez), labeko paperarekin edo aluminiozko paperarekin babestuta.

180°C-tan egingo dugu, 30 minutuz gutxi gorabehera, hostopila prest dagoen arte. Labe-papera eta garbantzuak kenduko dizkiogu.

Hostopil moldea porru kremarekin bete eta 180°C-tan laberatu 15 minutuz, mamitu arte.

Letxugen bouquet batekin eta perrexil olio pixkatekin aurkeztuko dugu.

Jokin Zabala Jauregi

OSAGIAK

- 500 g. Porrua
- 30 g. Gurina
- 750 g. Esnegaina
- 5 arrautza
- 21 cm-ko molde baterako hostorezko xafla bat (hojaldrea).

LITERATURAREN IRAKURKETA FEMINISTEN BIDEZ, BERDINTASUNA LANTZEA

Altzoko herrian KULTURA FEMINISTAREN hainbat urteetako lanketak, zuzeneko eragina izan du, udalerrri zein biztanleengan. Hala nola, (B) eroa Talde Feministaren sorrerak, zein Mariren Alabenak, herriko giro, aldarri, egun seinatu, jai eredu edota espazio publikoaren erabilerari dagokionez eraldaketa ekarri du.

2020. urtean, herritarrei feminismo gerturatzeko asmo eta nahiarekin, Irakurketa Feministak irakurle taldea martxan jarri da. Talde hau, Literaturaren bidez, ideia feministak landu eta elkarbanatzeko herri osoari zabalik dagoen gunea da.

Hilabete eta erdiko maiztasunarekin elkartzen dira taldekideak Batzarremuñon, eta Kattalin Mínerrek, idazle eta ekintzaile feministak, gidatzen ditu saioak.

Taldekideen ardura da liburuak aukeratzea eta, hauek, emakumeek idatzitako euskarazko lanak izaten dira beti.

2020. urtean irakurritako liburuak:



BIHOTZ HANDIEGIA

Eider Rodriguez, 2017



AITAREN ETXEA

Karmele Jaio, 2019



BASA

Miren Amuriza, 2019

BASERRI ZOPA

Letra guzti hauen artean, Altzoko 10 baserriren izenak aurkitu behar dituzu.
Ondoren, irudi bakoitzaren azpian izena jarri.

B	I	A	I	T	E	H	T	D	I	V	M	A	A	E
S	A	N	O	E	L	C	O	R	G	S	E	L	Z	C
M	L	B	L	A	I	I	O	R	E	O	D	D	T	T
E	A	N	I	E	L	O	I	E	E	E	R	A	R	A
N	U	E	B	O	R	A	S	E	O	G	L	I	A	B
D	B	S	N	O	D	E	J	E	R	O	I	O	I	A
I	G	U	E	E	L	S	R	E	U	A	D	A	D	L
Z	P	E	A	O	E	N	L	A	I	R	O	A	M	A
A	T	C	A	G	L	U	E	L	S	S	E	T	D	T
B	U	E	S	O	S	E	C	E	L	O	N	R	L	A
A	I	L	O	E	A	Z	G	A	A	O	O	E	R	E
L	M	R	T	R	O	O	E	A	A	B	S	E	Z	S
L	A	A	Z	E	N	E	T	L	R	A	D	D	E	A
O	I	D	L	O	L	A	E	T	A	R	A	N	Q	L
E	D	I	B	R	A	I	O	E	E	L	E	R	O	A



Lehiaketa

Hona hemen 2020ko Altzoko urtekariari dagozkion galderak. Hartu patxada eta irakurri lasai-lasai. Pentsatu ondo, orria bete eta hartu parte. Aurtengoan ere 80 euroko bi sari dituzue zain, Tolosako Bilintx liburu dendan nahi duzuen eroste-ko. Baina, hori bai, erantzun guztiek zuzenak izan behar dute sarien zozketan sartzeko. Beraz, orria bete (baita hurrengo orria ere), moztu eta eraman udaletxera uztailaren 26rako. Ekin lanari!

IZEN-ABIZENAK _____

HELBIDEA _____ TELEFONOA _____

1 – Nola dute izena Altxo Azpiko meategiek?

- Kaholin-polit
- Kaholin-eder
- Kaholin-zuri
- Altxon ez dago meategirik

2 – Zein onura ditu haurrak naturan hezteak?

- Gaixotasunak edukitzeko aukerak handitzea
- Ingurua ezagutzea
- Irudimena eta sormena suspertzea
- Bakarkako lana indartzea

3 – Non dago Naroa bainatu zen laku izoztua?

- Kopenhagen
- Berlinen
- Laponian
- Malmön

4 – Nolako soinua egiten du Lanroverrak?

- Ttor-ttor-ttor
- Brumm-brumm
- Rob-rob-rob
- Txor-txor-txor

5 – Zein egunetan joaten ziren herritarrak prozesioan Santa Barbara Ermitara?

- San Juan egunean
- San Inazio egunean
- San Mateo egunean
- San Markos egunean

6 – Zein Altxotar federatu izan zen txapeldun 2020. urtean?

- Harkaitz Murua
- Uxue Olano
- Iker Zubeldia
- Anne Agirre

7 – Zein berrikuntza egon zen San Inazio festetan?

- Artea dantza taldearen ikuskizuna
- Goiz eresiko diana
- Herriko musikarien zuzeneko musika
- Manu Olano aritu zen gai jartzaile moduan

8 – Zenbat denboraz aritu ziren hormairudiko lanak egiten?

- 3 arratsalde eta 2 gauetz
- 2 arratsalde eta 3 gauetz
- 2 egunez
- 3 egunez

9 – Noiz azaleratu zen Migel Joakinen hezurak bilatzen hasteko ideia?

- Lourdes Herrasti eta Pako Etxebriarekin hizketan ari zirela
- Altxoko Udalaren ideia izan zen haseratik
- Handiaren familiakoekin hitz egitean
- Udaleko kideak eta Karlos Almortza kafea hartzen ari zirela

10 – Non bizi da birusaren istorioko amonaxoa?

- Altxon
- Mendi puntan
- Otsabion
- Txanogorritxurekin batera

11 – Zein koloretakoak izaten dira zapaburuak?

- Marroixkak
- Beltzak
- Gorrixkak
- Argiak

12 – Zenbat Altxotarrek hartu zuten parte 2020ko euskaraldian?

- 143
- 8
- 125
- 7.035

13 – Bukatu esaldia: “-Zatoz hona, ttiki. ...”

- “... - Ni haundie naiz, atte.”
- “... - Aurrego ta goxogo.”
- “... - Ni naiz txikina, ama.”
- “... - Ni haundie naiz, ama.”



14 – Zein da egia?

- Koronabirusagatik, bezeroekin harremanak asko hoztu dira.
- Koronabirusagatik, naturan ikasteko atea itxi dugu eta honekin gustura gaude.
- Agurrik gabeko heriotzak ikustea izan zen denetan gogorrena.
- Beldurrak eta errespetuak hartu gaitu eta elkarrengana hurbildu.

15 – Zergatik eman zien dirua bertso-eskolako kideei gabon egunean?

- Ederki abestu zutelako
- Bertso bikainak kantatu zituztelako
- Ixilik egotearren
- Maskarilla zeramatelako

16 – Noiz ekin zien bilerei (B)eroa Talde Feministakoek?

- Maiatza bukaeran
- Ekain amaieran
- Maiatza hasieran
- Kurtso berriarekin batera

17 – Zer da emigratutako herrialdean integartzeko egin dezakezun gauzarik onena?

- Lagunak egitea
- Lana aurkitzea
- Bertako hizkuntza ikastea
- Bertako kultura aztertzea

18 – Zenbat bizikleta kabitzen dira munduko bizikleta aparkaleku handienean?

- 1.250
- 12.500
- 125
- 125.000

19 – Noiz joan zen “Arrastoan” dokumentaleko laukotea Laponiara lehenengoz?

- 1974an
- 1874an
- 2017an
- Ez ziren lau, sei baizik

20 – Non jaio zen Juan Antonio Sarasola?

- 1887an
- Zurrizketa baserrian
- Bizkarateko bordan
- Amezketan

21 – Zenbat euri egin zuen 2020ko hil bustienean?

- 33,8l
- 33,5l
- 1.028,2l
- 231,6l

22 – Zerekin eratuko dugu porru pastela egiteko moldeak?

- Hostorearekin
- Sardexka batekin
- Irinarekin
- Porruekin

23 – Zenbat haur jaio ziren Altzon 2020an?

- 3
- 2
- 1
- 0

24 – Zergatik janzten du Oilaunek maskarilla?

- Eusko Jaurlaritzak agintzen duelako
- Otsabiren usain txarretik babesteko
- Gutxiagotan dutxatzeko
- Koronabirusa harrapatu duelako





... eta gu atzean